

uk

112. zenbakia / 2007 urtarrilak 29



# Eskegi sukaldean UKren barazkien posterra

Zelan eskuratu?  
Zatoz UKren bulegora\*, eskatu eta kitto!

## Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Barazki guztien izenak

(euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta izen latinez) eta eurak jateko sasoiak.

Argitaratzailea:


UK aldizkaria

Babesleak:

Getxoko Udaleko

Euskara Zerbitzua

BBK



\* bulego ordutegia:  
goizez 10:00-14:00 / arratsaldez 15:30-18:00



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

## UK galeria > Oskar Martinez



Leioan kazetaritza ikasketak egin zituen Oskar Martinezek (Algorta, 1971). Ondoren kamera aldean hartu eta gaur arte horretan dihardu, argazkigintzan. Aspaldian -berak ere ez du gogoratzen zenbat urte diren- Deia egunkariko argazkilaria da. Bestalako zenbait komunikabiderekin ere kolaborazioak egiten ditu, esaterako, Marca edo El periodico de Bilbao. Bere lanekin sari garrantzitsu bat baino gehiago eskuratu du Oskarrek.

Baina argazkigintzaz gain badu beste pasio bat: itsasoa. Izan ere, hamar urtez Algortako Arrau Taldean ibili izan da. Orain dela gutxi kayak egiten hasi zen, baita lorpen garrantzitsuak lortu ere. Gaur egun Euskal Herriko Txapeldun ordea da eta iaz egin zen munduko lehiaketan 11. sailkatu zen. Azal honetarako utzi digun argazkiak ederto erakusten duen legez, bere semea Oierri begira lerdea dario.



Oierrek astebete

«Denak negarrez jαιο, barrez inor ez» Euskal esaera zaharra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Usategi parkea, 1947-2007.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Anton Alcocer Zapa.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Uriolak Erromon, 1977.
30. BERBETAN. Xabier Paya, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Luluca Circus, Carlos Terreros.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Gaizko eta Antuñano.
43. MUSIKA. Musika liburua euskaraz. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Harkaitz Canoren uzta. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo arraun talde berria.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Ana Iri, Oiane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Teikitisy.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Eñiztariak Faduran, 1965. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Onintza Enbeita, Maitane Nerekan.



30 Xabier Pala



11 Anton Alcocer Zapa

### Berbetan

Itzultzailea, irakaslea, bertsolaria... Bizkaiko bertsolari txaldedun berri flamante eta polifazetikoarekin berbetan egon gara.



34 Luluca circus



46 Ana Iri



54 Onintza Enbeita



42 Fanarraga eta Antuñano



## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamirua, Amaia Arriaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



# gugeu

## Urte berria

Edadean gora egiten dugun heinean, pertsonok nekez aldatzen garela ikasi genuen guk aspaldian. Hala ere, ikasi, ikasi esaten dena ez omen dugu ikasten eta urtero, urte berriaren hasieran -inertiak jota eta oharkabean- gogoeta bera egiten dugu. Gero laster ahazten dugun gure bizitzak aldatzeko eta hobetzeko gogoia eta asmoa izaten dugu -persona gehienek bezalaxe- urte berrian; ohitura txarrak baztertu, hobeak gure egunerokotasunean txertatu... Urte berriari hasiera ematen diogu guk esku artean darabilzuten UK honekin batera. Eta, jakina, gure bizitza onera aldatu nahi dugun moduan, aldizkaria bera ere hobetu nahi genuke. Horixe, Sisiforen biktimak ere bagarela!

Bestetik, *Gu geu* ataltxu hau Xabier Paya zoriontzeko ere erabili nahi genuen. Bihotzez diogu, izugarri poztu gaitu Xabierren garaipenak, Xabierren txapelak. Txapela eguzkiak jotzen duenean burua fresko eta itzalpean mantentzeko oso egokia da; hotz zein euria egiten duenean berriz, babesten gaitu. Zama ere izan daiteke txapela edo boneta, iparraldean esaten dioten moduan. Izan ere, aurrerantzean beste begi batzuz begiratuak, aztertuak eta baloratuak izango dira Xabier eta bere jarduna. Horixe da txapel horren zama, edo erantzunkizuna. Xabier ezagutzen dugulako, jakin badakigu duintasun handiz jantzi eta defendituko duela txapel hori. Saiatu behintzat saiatuko da.

Apur bat berandu bada ere, urte barri on! 4

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua




Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

## Galdera zentzugabeak

Urte berrirako asmo zein egitasmo onak alde batera utzita, zer propioagoa, zer tipikoagoa urtarrilean beherapenak baino? Ekialde urruneko Errege Magoek gure etxeetako gabonetako zuhaitzen azpian opariak utzi eta alde egiterakoan kontsumoaren gurpil zoroak atsedean txiki bat emango digula dirudienean zertzuk eta... beherapenak datoz. Nik ez dakidana da nondik demontre ateratzen dugun horrenbeste diru. Esan diezadala norbaitek, arren, non ote dagoen dirua barra-barra ematen duen iturri miraritsu hori arinetan joan eta baldekada batzuk atera ditzadan. Gezurra esaten al digute batez besteko familia batek hilabetearen bukaerara iristeko zailtasun handiak dituela dioskutenean? Gezurra al da, baita ere, hipotekak itota gaituela esatean? Ez al genituzke horrelako baieztapenak gehiago erlatibizatu behar? Diot nik. 4



[irudia]

BERANGO, 2007KO URTARRILA

**Enbor gogorak, eutsi!** / “Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak / ez bada abaildu eta oholetan” esan zuen poetak. Abesti batek kantatzen du enbor zahar batek esan ziola jaio berria zen landareari: “Izan nituen errama eta lore / den-denak zeru kolore. / Gauza asko maite arren / benetan maite, lurra nuen maite / hura baitzen neure sustraien ljaun eta jabe”. Maitasuna askotan hiltzailea dela diote, baina... Inausketa urteroko beharrezko ebakuntza bada ere, oraingoan hil aurretik eman diete lurra! m / Argazkia: **Asier Mentxaka**





# ARGIA egutegia 2007 salgai

## Azalean

- ▶ eguzkia eta ilargiari dagozkionak
- ▶ santutegia
- ▶ gizon-emakumezkoen euskal izenak
- ▶ itsasgora eta itsasbeheren inguruko informazioa

## Atzealdean

- ▶ egunarekin lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak

NOBEDA  
NOBEDA



Egutegia: 7,50 € · Taula: 50 € + egutegia opari

### eskaerak

© 943 371 545 · denda@argia.com · www.argia.com/denda



www.argia.com

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASER MENTAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTAKO USATEGI PARKEA 1947-2007

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



## uribitakora &gt; urtarrilean bero



Plentziako hondartza, 2007ko urtarrila

Testua: **Xa2 Paya**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**

**1**

—Aupa, Nagore, hau da eguna,  
ze eguraldi itzela,  
15 gradu kanpoan eta  
barruan zein ur epela!  
Gozamena da paseatzea  
udaberrian bezela,  
benetan zeinek esango luke  
urtarrilean gaudela!

**2**

—Hala da, Ane, ederrak dira  
aroa zein ikusmira,  
gure itzalak gure islekin  
jolasean ari dira.  
Begiak erraz joaten zaizkit  
ihesean Kantaurira,  
pena da ezin surfeatzea  
itsasoari begira.

**3**

Oinats lerro bat marraztu dute  
harean neska gazte bik,  
haiei begira ama natura,  
ez da ikusten besterik.  
Labarrak ez du nahi olaturik  
bere hondartzan hiltzerik  
horrexegatik, esaten die  
“zoazte, alde hemendik!”

\* Doinua: Erreguetan ari nintzela

## bertsolaritza &gt; Xabier Paya zoriontzeko ekitaldia



Xabier bere maisuez ingururatuta

**Joan** den urtarilaren 18an Xabier Paya aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazlea omendu zuen Getxoko Udalak. Ekitaldia Villamonteko kultur etxean izan zen eta jende ugari bildu zen bertan bertsolari algortarra zoriontzeko asmoz. Han izan ziren, besteak beste, bertsolariaren sendia eta lagunak; Payaren irakasle izandako Jon Lopategi eta Xabier Amuriza (bertsoren bat edo beste botatzeko aukera ez zuten galdu); Trino Azkoitia eta Joseba Santxo, ALBEko lagunak, eskola bereko ume pilo batez eta herriko zein kanpotik etorritako bertsotzale ugari. Txapela jantzita zeukala jaso zuen Xabierrek Aixerrotaren irudiagaz egindako oroigarria eta une horretan hain unkituta zegoen ezen botatuko bertso batean poto egin zuela. Hala eta guztiz ere, bertaratutakoen txalo zaparrada jaso zuen txapeldunak. Ekitaldia oso giro atseginean amaitu zen, luntxa eta guzti. <sup>m</sup>

## sendi proiektua &gt; seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko ikastaroa



Euskal kantak ikasteko ikastaroan abesti tradizionalak zein berriak landu dira

**Seme-alabei** eskolako etxeko lanak laguntzen saiatzen dira askotan gurasoak, baina euskara jakin arren, trabak edukitzen dituzte ikasgai batzuetako hiztegia euskaraz ezagutzen ez dutelako. Arazo horri aurre egiteko ikastaroa antolatu du Sendi proiektuak. Eskolen helburua ez da euskara irakastea, euskaraz zerbait dakitenei trebakuntza ikastaro berezia eskaintzea baizik. Horretarako talde bi antolatuko dituzte Udal Euskaltegian: 10:00etatik 11:30era bata eta 18:00etatik 19:30era bestea (martitzen eta eguenetan). Ikastaroak 50 orduko iraupena edukiko du eta matrikularen prezioa 60 eurokoa da. Etxeko lanena ez da Sendik antolatu duen ikastaro bakarra. Esate baterako, seme-alabei kantatu ahal izateko abestiak euskaraz erakusten dizkiete Getxoko gurasoei. Ekimena nahiko arrakastatsua izan da eta hurrengo batean berriz antolatzea aurreikusi dute. <sup>m</sup> **Informazioa: 685 73 29 63**

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiek...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143



## agate deuna > ate joka oles egiteko eguna heldu da berriz ere



K.o. III. mendean bizi izan zen Agate martiria Sizilian

“**Aitzaldun** daigun Agate Deuna...” hasten da gure kaleetan hainbestetan kantatu den abestia. Euskal Herriko txoko gehienetan ospatzen den jaia da Santagedakoa eta datorren otsailaren 4an hainbat izango dira Uribe Kostako kaleak doinu ederrakaz beteko dituzten lagun taldeak. Agate Deuna martiria Sizilian jaio zen k.o. 230. urtean. Orduan Cataniako nagusi zen Quitinianok neskatua emaztetzat hartu gura izan zuen, baina azken honek ezetz esan zion bere arima Jaungoikoari eskaini gura ziolako. Quintinianok, neska lortzea ezinezkoa zela ikusita, hura torturatu eta hil egin zuen. Agatek 21 urte besterik ez zeuzkan. Euskal Herrian santuaren omenezko jaia oso garrantzitsua izan zen garai batean eta herri askotan kristautasunaren aurreko hainbat erritoakaz nahastu da (makilaren kolpeak lurra neguko lozorrotik izartzeko eta udaberriari paso emateko direla esaten duenik bada). m

## internet > sareko euskarazko produktuen katalogoa kalean da



Uribe Kostako hainbat udalerrik proiektuan parte hartu dute

**Euskararen** etorkizuna gazteen eskuetan dagoela ikusita, 16 eta 26 urte bitarteko pertsoneri Interneteko euskarazko produktuak helarazteko katalogoa kaleratu dute Bizkaiko 30 udalek; tartean Berangokoak, Erandiokoak, Getxokoak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Proiektua burutzeko, berriz, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskaltel, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Alkarbideren laguntza eduki dute udalerriek. 77 erreferentzia topa daitezke katalogoan eta atal nagusi bi ditu: alde batetik, *Sarean Blai* (euskarazko softwarea, blogak euskaraz egiteko tresnak...); beste aldetik, hezkuntzagaz lotutako baliabideen informazioa bideratzen duen *Ikusi eta Ikasi* (apunteak, liburuak, ariketak...). Katalogoak liburuxka formatua dauka eta CD bategaz banatuko dute. m



“Algortarra izatea goi mailako ikasketak eta 2 edo 3 master ateratzea bezala da” dio Anton Alcocerrek

## Anton Alcocer > algortar peto-petoa

**Zapa**, horrela ezagutzen dute Anton bere ingurukoek. Berari buruz galdetzean, argi utzi digute denek: gauza guztien gainerik *guaitoa* da. Algortarren zarpigarren belaunaldia da familian eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu herriko jende eta ohitura guztiak. Garraio enpresa batean behar egiten duen arren, denbora gehiena lagunekin batera daukan Bidebitarte txokoan ematen du. Euren santutegia da: “*Txokoa harremanak egiteko beste era bat da, herrian sentitzeko forma bat. Gainera, bertan, desagertzeaz dauden balore asko lantzen dira: adiskidetasuna, elkartasuna...*”. Bere 18 urteko alabak, aitaren pausoak jarraituz, txoko bat alokatu du lagunekin: “*Berea janariaren inguruan izan beharrean beste gauza batzuen inguruan da, baina adiskidetasuna mantentzeko ere oso ondo dago*”. Herriko giroan eta bizitzan sinisten du Antonek eta guztiok gure aldetik zerbait ipiniz gero aurrera aterako dugula espero du. Ez ditu modan dauden merkatal gune eta diskoteka erraldoiak gustuko, hauek herriari bizia kentzen diote eta: “*Garrantzitsua da herriko poteo giro euskaldun jatorra mantentzea, alkoholik gabeko zuritoak hartzen badira ere*”. Gaur egungo gizarte indibidualistaren beldur da, gizatasuna galtzera eramango gaituela uste du eta. Honen aurrean, herriko merkataritza bultzatzea, Amezti kaleko gazte giroa berrindartzea eta sustatzen ari den lo-hiri eredu baztertzea proposatuko lioke alkaterei: “*Nik nahiago dut zarata jasan behar izatea, erabateko ixiltasuna baino*”. Ez du Algorta elitista batean sinisten, herria herritarrena da edo, hobeto esanda, herritar barik ez dago herririk. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**



**AIXERROTA BHI**  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztaian

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86





# Gobelari saria

**Energia eraginkortasunaren agiria eman diote Gobela kiroldegiari;** gainera azpiegiturek duten baliabide eta energia erabileragatik, **atmosferara 200 tona CO<sub>2</sub> gutxiago** jaurti dira

**Joan den urte amaieran jaso zuen Getxo Kirolak-eko Gobela kiroldegiak energi eraginkortasunaren ziurtagiria. Agiri hori energia aurrezpen maila gorena lortu baino aurreko pausoa dela jakinarazi dute Getxoko Udaleko arduradunek, dagoeneko Fadurako kiroldegiak badaukana.**

**Energi eraginkortasun** ziurtagiria Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen CADEM zentroak (Energia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia) ematen du, EEEK (Energiarako Euskal Erakundea) ikuskatu eta aztertu ostean.

Horrenbestez, EEEK indarrean dagoen araudia kontuan hartuta aztergai den azpiegitura alderatzen du "azpiegitura ideal, teoriko" batez. Fluxu termikoaren aldakortasuna, beharrezko argiztapen indarra eta kontsumoa aztertzen ditu ikusketak; beraz, Gobelako kiroldegiak aztergai guztiak betetzen ditu eta horregatik eman diote ziurtagiria.

Getxoko udal arduradunek azaldu dutenez, agiri hori energia aurrezte maila gorena (kogenerazioa, edo aldibereko ekoizpena) lortu aurreko pausoa da. Horren albotik, Getxo Kirolak-eko arduradun Guzman Aranagak gogoratu legez, Fadura kiroldegiak dagoeneko aurrezte maila gorenean dihardu. Horrela, Gobela kiroldegiarako hurrengo erronka maila goren hori erdieste litzateke.

Aranagak azaldu duenez, ziurtagiriak aztertzen ez badu ere, badauka berri honek beste alde garrantzitsu bat ere: *"Ingurumen-eragina gutxitu egin da, hau da, atmosferara 200*



Gobela kiroldegia

*tona CO<sub>2</sub> gutxiago jaurti dira*".

## **Ekimenak eta erronkak**

Gaur egun, Ingurugiro arlotik Udalak martxan dauzkan ekimenen artean hurrengoak daude: kale-argiztapen sarean energi eraginkortasunerako neurriak ezarri eta udal eraikinetan energi eraginkortasunerako baliabideak jartzeko deketua onartu (ikerketak eta plangintzak egitea). Horrez gainera, udalerriko hainbat eraikinetan banatuta, guztira 200 metro koadroko azalera beteko lukeen eremua dago energia berriztagarriko

## **«Guztira 200 metro koadroko azalera dago energia berriztagarriko baliabideakaz»**

rako neurriak ezarri eta udal eraikinetan energi eraginkortasunerako baliabideak jartzeko deketua onartu (ikerketak eta plangintzak egitea). Horrez gainera, udalerriko hainbat eraikinetan banatuta, guztira 200 metro koadroko azalera beteko lukeen eremua dago energia berriztagarriko

riak lortzeko baliabideakaz (eguzki panelak, berbarako). Eguzki panelak dituzten eraikinak, besteak beste, hauexek dira: Larrañazubi, Zubilleta, Aixerrota eta Geroa hezkuntza zentroak, Fadura eta Gobela kiroldegiak eta Etxezuriko babes ofizialeko etxebizitzak.

Inguru arlotik eragindako horrelako ekimenetan, udal arduradunen arabera, azken 5 urteotan 243.308 euro inbertitu dituzte. Etorkezunari begira Udalaren erronken artean hurrengoak aipatu dituzte udal agintariak: energiaren erabilpen eraginkorra egiteko herri-tarrak kontzientziatzea, udalerrian energia berriztagarrien erabilera bultzatzea eta udal eraikinak ere helburu horien arabera egokitzeko lanean jarraitzea. m

## Ingurumen Aretoa ia prest

**Otsailaren amaieran edo zabalduko** ditu ateak udal zabortege ohiaren inguruetan



Argazkiaren atzealdean ikusten den baserrian lekutu da Ingurumen Aretoa

**Larrañazubi** inguruetan lekutzen den baserri bat zahar-berritzen dabil Getxoko Udala, bertan zabalduko ditu ateak Ingurumen Aretoak hil honen amaieran ala martxo hasieran. udal Zabortege ohi zegoen eremua berreskuratzeko egitasmoaren parte da Ingurumen Aretoa, eta egiteko horretara 500.000 euro inguru bideratuko ditu Udalak.

Zahar-berritzen diharduten baserriak, etorkizuneko Ingurumen Aretoak, bi pisu dauzka, guztira 250 metro koadro erabilgarri (150 metro koadro beheko solairuan eta 100 metro koadro goian). Ingurumen zinegotzi Fernando Burzakok adierazi duenez, Aretoaren helburua hurrengo da: *"Ingurumenari buruz herritarrei kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea, asmo didakti-*

*ko batez jaiotzen dena, izan ere, herritar guztiak zuzendua egongo bada ere, batez ere gazteak ditu jomuga; hala hezkuntza ekologikoakaz lotuta dauden ekimenak bultzatuko dira bertan, bisitak, enkusketak...".* Erakusketen gainean Burzakok aurreratu duenez Udalaren asmoa izen handiko esposaketak ekartzea da: National Geographic edota Greenpeace lako erakundeek sinatutako lanak.

Oraindino lanak bukatu ez badituzte ere, ostean ingurua berreskuratzeko asmoa du Udalak, zuhaitzak eta landatu, berdegunez inguratu eremua... Bestalde, Burzakoren esanetan Aretoa energia berriztagarriak lortzeko baliabideak omitu nahiko lukete, energia eraginkortasunaren alde lanean jarraitzeko. m

## **KALEAK ETA PARKEAK UREZTATZEKO MURRIZKETAK**

Azken hilabeteotako lehorte dela eta, Getxoko Udalak, kaleak garbitzeko eta parkeak ureztatzeko uren murrizketa egitea erabaki du. Azken 60 urteotako bigarren lehorte garrantzitsuena izaten ari da aurtengoa. Horregatik, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoak, murrizketak egiteko proposamena egin die 60 udalerriri. Fernando Burzako Getxoko Ingurugiro zinegotziak esandakoaren arabera, kaleak garbitzeko eta parkeak ureztatzeko urak, iturburu propioetatik hartuko dira.

## **KANPOSANTUA HANDITZEKO 866.800 EURO ERABILIKO DIRA**

Getxoko kanposantuan 1.620 nitxo eta 604 hezurtoki berri egingo dira. Horretarako 7 hilabete inguru eta 866.789 euro bideratuko ditu Udalak. Zabalkundearekin, gaur egun dagoen lurzorua era arrazionalagoan aprobetxatu nahi da. Horregatik, ez da panteoi berririk eraikiko, lurra neurritz kanpo erabiltzea izango litzatekeelako. Lanek helburu nagusi bi izango dituzte: herritarren eskaerei erantzuteko nitxo eta hezurtoki gehiago egitea eta une honetan gaizki erabilia dagoen orubea berreskuratzea ahalbideratuko duen egitura egokitzea.

## **ETXEBIZITZARIK GARESTIENETAKOAK DIRA GETXOKOAK**

Aurten ere, Getxo, etxebizitza garestien dauden herrien artean dago. 50.000 eta 100.000 biztanle duten herrien artean, 2. postuan dago, Kataluniako Sant Cugat del Valles herriaren atzetik. Metro koadroa 3.135 eurotan egon da azken urtean Getxon, 2005ean baino %7 garestiago. Portugaleten, Barakaldon, Bilbo eta inguruko herri askoren prezioak ere igo dira. Azken hau, Estatuko laugarren hiriburu garestiena izatera pasatu da azken urtean, Madril,artzelona eta Donostiaren atzetik.



## **GUZION ARTEAN HEZITZEN**

- URTEBETETIK AURRERA
- HAURTZAINDEGI LABORALA
- AUTOBUSA ESKUALDEAN
- JANTOKI ZERBITZUA

- ESKOLAZ KANPOKOAK (EUSKAL MUSIKA ETA KULTURA, HIZKUNTZAK, KIROLAK DENETIK SURF, MULTIKIROLA...)

**ARENE AZPI, 15 - 48991 GETXO - TELF: 944 305 478 FAX: 944 305 477 - WWW.SANIKOLAS.COM**



## Landare

menderatzaile bat hazi da Gobela errekan

**Gobela** erreka urbazterretan *“Reynoutria japonica”* delako landareak sekulako hazkundera izan du, eta mehatxu bihurtu da tokiko landaretzarako. Landare inbaditzaile edo menderatzaile deritzon horietako ei da *“Reynoutria japonica”* delakoa, inguru guztia bere egin arte hazi eta ugaltzen da eta tokiko landaretzaren ugalketa eragozten duelako arduratuta daude Udal arduradunak. Ingurumen

**«Udala landare inbaditzailea desagerrarazteko neurriak aztertzen dabil»**

zinegotzi Fernando Burzakok jakinarazi zuenez, *“hasiera batean errotik ateratzea izan zen, osteria kontu handiz egin beharreko lana da, zurtoin bakar bat lotuz gero berriro ugalduko litzatekelako, horregatik beste bide batzuk aztertzea erabaki dugu; berbarako, tratamendu kimiko bereziak erabiltzea ez kutsagarriak, noski”*. Iñaki Zarragoa alkatea makineria sartzearen alde agertu zen, *“ez dira neurri erasokorrak, faunari ez diogu kalterik eragingo, ugaltze epeak errespetatuko ditugulako”*. m

Reynoutria japonica Gobela ibaian



**Ana Rosa Tercero** > ACDGko lehendakaria

“Dantzari profesional ezagunek eman zituzten eskolak: Arrieta, Lebrero, Martin eta Falcon”



Ana Rosa Tercero

**Abendu amaieran Getxoko Dantza kultur elkarteak (ACDG) dantza jardunaldi batzuk antolatu zituen. 2003an sortu zen elkartearen lehenengo ekimena Nazioarteko Dantza egunaren inguruan ekitaldi bat antolatzea zen, iaz profesionalak gonbidatu eta gala ere egin zuten.**

—Zein izan da jardunaldion helburua?

—Hainbat eskolatako ikasleak batzea, dantzaz gozatzeko, eta entzute handiko profesionalak ezagutzeko eta eurengandik ikasteko aukera izan gura genuen. Getxo, Barakaldo eta Bilboko dantzariak batu ginen, 66 bat inguru; pozik gaude, ez da kopuru txikia, baina jende askok beste antzeko jardunaldietan izena emanda zuelako-eta, penaz, ezin izan dira etorri. Bertoko profesionalak gerturatu ditugu, hobetzeko edota aurrera egiteko atzerrira joan behar izan dutenak: Ana Lebrero, Blanca Arrieta, Rebeca Falcon eta Maria Martin badira nor dantza munduan, konpainia propioa eduki edota konpainia oso ezagunakaz dantzan dihardutenak. Eskola-lantegi bana eman dute: klasikoa, garaikidea, jazza eta flamenko eta estilizatu.

—Antolatzen duzuen lehen aldia da?

—Bai. Horrelako jardunaldiak Bizkaiko dantza elkarteak ere antolatzen zituen bere garaian, berbarako, lehenengoak Faturan egin ziren 1987an; eta Rebeca Falconek adibidez oroimen berezia gordetzen du haien gainean. Ideia berreskuratu gura genuen guk Getxon. Profesionalen, ikasleen eta zaletuen topaketa bultzatzea zen gure asmoa, eta hurrengo urteetan jarraipena edukitzea espero dugu; utzi dizkiguten Gobelako azpiegiturak oso aproposak izan dira, oso ondo daude eta dena oso ondo joan zen. Dirulaguntzarik ez dugu eduki jardunaldiok antolatzeko, baina Udaletik ekimena aurrera erobatan lagundu digute, bai! Getxon tradizio luzea dauka dantzak, beti egon da zaletasun ikaragarria, dantza eskola asko daude herrian... Elkarte profesionalak eta eskolez gainera, ikasleek, bazkideek, zaletuek... osatzen dute. Hainbat proiektu garatu ditugu.

**«Dantza dokumentazio zentro bat dugu, orain arte hemen ez zegoena»**

—Dokumentazio zentroa, adibidez.

—Dantza eta Dokumentazio zentroa sortzeko Aldundiaren dirulaguntza izan dugu. Ez zegoen horrelako zentrorik hemen orain arte. Lan itzela izan da, informazioa bildu, artiboak geureganatu... bazkideek ere laguntza handia eman dute euren dantza-liburuak eskainiz eta bestelako baliabideak utziz. Momentuz, Dantzarte eskolan dago zentroa han dugulako egoitza, baina gure asmoa Getxoko liburutegiari uztea-edo da. Horrela informazio hori guztia jende edo zale guztien eskurago egongo da. Bestalde, Dantza kudeaketa eta motibazio eskuliburu batzuk ere plazaratu ditugu, urtean dantzaren inguruko alor desberdinetako bi eskuliburu prestatu gura genituzke. Egia esan, dantzari buruz ez dago balibide askorik, edo ez daude eskuragarri, gehienak ingelesez daude... Katalogo batzuk ere egin ditugu. Orain horiek guztiak argitaratzeko laguntza bila gabiltza. m

## Gaztaiaren topalekua

Otsailaren bigarren aste-akabuan

Algortako **Geltoki plaza** gaztandegia



Euskal Herria, Espainia, Kanariar Uharteak, Katalunia eta Frantziatik helduko dira gaztagileak

**Hirugarren** aldiz segidan, Kultur Etxeak Gaztai Azoka antolatuko du otsailaren 9tik 11ra. Geltoki plaza izango da urtero legez “gaztandegia” eta mota zein jatorri desberdinetako gaztak dastatzeko, ezagutzeko zein erosteko topaleku itzela edukiko dute egun horietan Algortara hurbiltzen direnek.

Pasa den urtean 9 salmahai ipini zituzten, eta Kultur Etxetik jakinarazi dutenez aurton gehiago egongo dira, hamaika inguru. Gaztai Azoka antolatzeko ardura duen Iñaki Garatek azaldu duenez, *“salmahai gehiago jarri behar izatea berri ona da; horrez gainera, urtero azokara hurbildu den jende kopurua haziz doa, horrek ere pozten gaitu, eta aurten joera horrek hala jarraitzea espero dugu”*.

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa (Erronkaritik), Kantabria, Caceres, Asturias, Kanariar Uharteak, Katalunia eta Frantziatik helduko dira gaztagileak. Azken bi herrialde horietakoak izango dira aurtengo nobedadeak. Horrenbestez, Idiazabal gaztairik ez da faltako, ahuntz-esnez egindakoetatik hainbat mota egongo dira, gaztai urdina deritzonak ere gozagai egongo dira, behi-esnez egindakoak, titi-gaztaiak, ardi-esnezkoak...

Hala, gaztazaleak badaki non eta noiz daukan hitzordua gaztai-atal bat probatzeko eta, gogoko balu, erosteko aukera. Azokaren ordutegia barikutik domekara ez da aldatuko, goiz eta arratsalde egongo da zabalik: 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:30era. m

**PIRRITX ETA PORROTX PAILASOEN EMANALDIAK HIRU EGUNEZ**

Getxoko Udalak umeentzako asteburu berezia antolatu du otsailean. Pirritx eta Porrotx pailazoek, Mari Mototsen laguntzarekin, bost emanaldi eskainiko dituzte Getxo Antzokian hilaren 2an, 3an eta 4an. Taldea 1987an sortu zen eta ordutik hona jo eta ke ibili da emanaldiz emanaldi. Antzeppenak 16:30ean eta 18:30ean izango dira eta 3,50 euro ordaindu beharko dira.

**BAZKARIA SANTA AGEDA EGUNAREN BEZPERAN ALBEREN ESKUTIK**

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, bazkaria antolatu du Algortako Bertsolari Eskolak. Hitzordua 14:00etan izango da Karitate kaleko Aldai Patronatuan. Bertatik abiatuta poteo txiki bat egingo da eta ondoren bazkaria hasiko da Piper Irish Pub tabernan 15:00etan. Parte hartu nahi dutenek bertan eman beharko dute izena ordu laurden arinago. Arratsalde partean, 18:30ak aldera, beste hitzordu bat ere egin dute, kantatzera joan nahi duten guztiak Aldai Patronatura bertara daitezten.

**SIMULACRO TALDEAREN AZKEN LANA GETXO ANTZOKIAN**

Simulacro taldeak, *Graffiti de amor politico social* obra estreinatuko du hilaren 10ean, 20:00etan Getxo Antzokian. Arantxa lurrek idatzitako gidoiak, mundu erreala eta fantasiako mundua nahasten ditu. Horretan idatzitako graffiti bidez komunikatzen den bikote baten istorioa ardatz hartuta, askatasunaren, maitasunaren, inkomunikazioaren eta beste gai askoren gaineko gogoeta egiten dute aktoreek. Simulacro/Ekoma talde getxoztarrak, *Palascarra y un camino* eta *Solo* obrak ekoiztu ditu, besteak beste.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

**LEHEN, ORAIN ETA BETI**

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



Txakolinaren museoa

## Mendibile Jauregiko ateak udaberrian irekitzea aurreikusten du Udalak

Inolako oztoporik egon ezean, Bizkaiko Txakolinak merezi duen etxea edukiko du hilabete batzuk barru Leioan, Mendibile Jauregian hain zuzen ere. Edari ospetsua sustatzea ez da, baina, egoitzaren helburu bakarra izango, herriarentzat onuragarriak diren bestelako ekintzak burutzeko lekua ere izango da-eta. Hori guztia uztartzeko, Mendibile Jauregia Elkartea osatu dute Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren sostenguagaz.



Herriko eragile guztiak deitu dituzte egitasmoan parte hartzera

**Bizkaiko** Txakolinaren Kontseilu Erregulatzailaren etorkizuneko egoitzan azken ikutuak ematen ari dira; izan ere, udaberrian bere ateak irekiko dituela jakinarazi du Leioako Udalak. Bere baitan hainbat azpiegitura bilduko dituen eraikina izango da Mendibile jauregia: txakolinaren museoa, kontseiluaren bulegoak, batzarretarako aretoak, jatetxea...

Arestian esan bezala, egoitzaren erabilera ez da txakolina gure artean indartzera mugatuko. Horrez gain, udalerriko sare sozioekonomikoa eta nekazaritza bultzatu gura du egitasmoak. Hori dela eta, diseinu oso garbi eta funtzionala edukiko du azpiegitura berriak, gela zabalak, gura duen enpresak zein elkarteak (herrikoa zein kanpokoak) ete-

kina atera diezaion. Besteak beste, aurkezpen komertzialak, batzarrak, hitzaldiak zein jardunaldiak egiteko aukera eskainiko du. Udalaren esanetan, instalazioak punta-punkina atera diezaion.

### «Diseinu garbi eta funtzionala edukiko du azpiegitura berriak»

takoak izango dira, soinu eta bideo tresna modernoak eta Internet konexioagaz. Museoa antolatzeko eraikinari emango dioten izaera hartu dute kontuan eta sagardoaren ekoizpen prozesua azaltzeko multimedia-

ri emango diote garrantzia (ez dute tresneria zaharra erakutsiko).

Hori guztia aurrera eramateko, Mendibile Jauregia Elkartea osatu dute hainbat eragilek, tartean, EAEko erakundeek. Hala eta guztiz ere, bazkide berriak hartuko ditu (kultur taldeak, enpresak...), herritarrek proposatutakoa abian jarri ahal izateko, azken horiek edukiko dute-eta proiektua gauzatzeko ardurara. Guztion parte hartzea bermatzeko, berriz, bazkide estrategikoen formula sortu dute, baliabide ekonomiko urridun eragileek ere lekua eduki dezaten. m

## The Beatles

Liverpooleko banda gogoangarriari buruzko erakusketa antolatu dute **Kultur Leioan**



Diskoak, argazkiak, posterrak... taldeari buruzko makina bat gauza ikus daitezke erakusketan

**Zorionekoak** eskualdeko "beatlemania-koak"! Izan ere, otsailaren 28ra arte Liverpooleko talde esanguratsuen inguruko erakusketa ikusgai egongo da Kultur Leioan. Bertan, XX. mendearen bilakaeran fenomeno musikal, sozial eta kultural izugarri garrantzitsu bilakatu zen taldearen historia zein makina bat bitxikeria erakutsiko dira.

Zaletuek eta hain zaletuak ez direnek, beraz, aukera paregabea edukiko dute Ingalaterrako musikari mitikoen inguruan gehiago sakontzeko. Bildumak, halaber, garai hartako errelitatera bidaiatzea ahalbidetuko dio ikusleari.

Gehienok ezagutzen dugun diskografia ofizialaz gain, inoiz argitaratu ez diren diskoak

erakutsiko dira: 300 binilo baino gehiago EP, IP eta single formatuan; CD formatuko bildumak... Horrez gain, argazkiak, posterrak, 150 liburu, aldizkariak, komikiak, filmoteka (filmografia ofiziala, dokumentalak, marrazki bizidunak), bildumazale objektuak... ikusteko aukera egongo da.

Bestalde, gaiaren inguruan bisita gidatuak, hitzaldiak eta proiektio bereziak antolatu dituzte Kultur Leioako arduradunek.

Erakusketa asteke egun guztietan egongo da irekita: astelehenetik barikura 10:00etatik 20:00etara; zapatuetan 17:00etatik 20:00etara; eta domeka zein jaiegunetan 11:00etatik 14:00etara. m

Informazio gehiago: 94 607 25 78

## EUSKARA HIRU SALTOKITAN SUSTATUKO DU UDALAK

Leioako Canada House umeentzako arropa dendan, Kopileioan eta LeioaVision optikan Merkataritza Euskalduntzeko Plan Integrala (MEPI) ezarriko du Udalak, bakoitzaren egoera linguistikotik abiatuta euskara sustatzeko; hau da, aurretik egindako diagnosia abiapuntu duela, beharrezkoak diren urratsak, epeak eta ardurak zehaztuko ditu saltoki bakoitza euskalduntzeko.

## 2007KO ARTISTA GAZTEEN ERAKUSKETA KOLEKTIBOAK

Artista gazteen Erakusketa Kolektiboak 2007an izena emateko epea luzatu du Kultur Leioak eta interesa daukaten artistek urtarilaren 31 arte edukiko dute kultur etxean aurkezteko. Edozein gaztek aurkez ditzake bere proposamenak, baina Leioako bizilagunek lehenetsuna edukiko dute. Erakusketa kolektiboa antolatzen duten hirugarren aldia izango da aurtengoa.

## OBULUAK IZOZTEKO TEKNIKA BERRITZAILEA ERABILIKO DU IVI-K

Ugalketa arazoez arduratzen den klinika da Valentziako IVI eta egoitza ugari ditu munduan zehar, tartean, Leioan. Tratamendu berritzaile asko erabiltzen ditu Valentziako klinikak; berriena, bitrifikazio teknika erabiliz obuluak izozten dituena. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren zain dago egitasmoa abian jarri ahal izateko. Teknika hori EAEn erabiltzen bakarra izango da.

# Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa  
Tel: 94 633 81 59

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre, 2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirstab@euskalnet.net](mailto:hirstab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)



## [erandio]

Jose Luis Orozko > sokatira entrenatzailea

“Sokatira talde **berriak atera** behar dira, lehen gehiago zeuden eta”

**Goiherri Kirol Elkartekoak sokatiran hasi zirela 30 urte betetzen dira aurten. Hastapenetan egon zen Jose Luis Orozko entrenatzailea eta oraindino ez zaio sokagaz lehiatzeko grina amatatu. Denbora tarte horretan makina bat sari eta titulu eskuratu ditu taldeak: hainbat munduko txapelketa, Euskadiko txapelketa, Bizkaikoak... Urte horietan guztietan bizitakoa gogoratzeko mundu osotik etorritako taldeen aurka lehiatuko dira uda partean, etxean bertan.**



Argazkian, Jose Luis Orozko

—Zelakoak izan ziren zure hastapenak sokatiran?

—Goiherrin beti eduki dugu horretarako zaletasuna. Gazteak ginen orduan eta sokatiran edozein lekutan ibiltzen ginen. Esate baterako, orduan Leioako unibertsitateko aparkalekuan entrenatzen genuen.

—Lehenengo garaia eta gaur egunekoak zeharo ezberdinak dira, ezta?

—Gaur gaxtagoa izango litzateke taldea martxan jartzea. Bestalde, lehen herriko jaientan lehiatzen ginen eta gaur atzerrira ere joaten gara, entrenamendu asko egiten dugu, profesionalagoak gara... Giroa, beraz, bestelakoa zen hasi ginenean, herrikoia.

—Sokatirak ba al dauka jarraipenik Euskal Herrian edo zerbait folklorikotzat hartzen dugu?

—Txapelketetan jendea egoten da, baina lekuaren arabera da beti ere. Hemendik (Uribe Kosta) afizio handia dago. Bilbon, esaterako, ez genuke jende askorik erakarriko.

—Sokak etorkizunik daukala uste duzu?

—Taldea gehiago atera behar dira, lehen gehiago zeuden eta. Hala eta guztiz ere, gaxta da hori; izan ere, talde berri bati handi gera-

tzen zaizkio honetan urteak daroazen aurkariak. Agian, berriak euren artean lehiatzen hasi beharko lirateke eta eskarmentua hartzen dutenean jauzia eman.

—Ez da emakumezkorik ikusten zuen klu-bean...

—Ez, gaur egun 25 kirolarik osatzen dute taldea, guztiak gizonetzkoak. Garai batean neskak egon ziren, baina etortzeari utzi zioten. Nesken talde berria sortzen saiatzen

### «Giroa herrikoia gero zen sokatiran hasi ginenean»

nabil orain, baina neskek goma gainean tiratu gura dute eta ez daukagu modalitate horretan entrenatzeko lekurik, guk orain lur gainean bakarrik tiratzen dugu eta. Onena goma gainean hastea izango litzateke, neskek soka zer den jakin dezaten, eta gero lurrera pasatu. Jendeak nesken talde bat eskatzen du, baina esan bezala, instalazioak behar ditugu. Txoko txiki batez konformatzen gara!

—30. urteurrena ospatzeko nazioarteko txapelketa antolatuko duzue.

—Bai, halaxe da. Ez dugu oraindik behin betiko datarik ipini, baina uda partean izango da ziurrenik. Mundu osotik etorritako taldeek parte hartzea espero dugu: Suitza, Alemania, Ingalaterra... Gainera, jaialdi bat antolatuko dugu afari eta guzti. m

## Segurtasuna

440 jostailu arriskutsu erretiratu ditu dendetatik Erandioko Udalak



Etiketaren CE marka agertzen dela egiaztatu behar du erosleak

**Erandioko** Udaleko Osasun eta Kontsumo Arloak 440 jostailu erretiratu ditu herriko hainbat dendetatik, jakinarazi duenez, legeak agindutako segurtasun baldintzak betetzen ez zituztelako. Orain dela gutxi, ikuskaritza kanpainia abian jarri zuen Udalak eta udalerriko hamabi saltoki aztertu ditu guztira: sei bazar, bi liburutegia, estanko bat, opari-denda bat, jostailu denda bat eta, azkenik, supermerkatu bat. Horietan guztietan, etiketak, baldintzak eta bermeak legez agindutakoaren arabera jarrita ete dauden begiratu dute.

Gurasoek jakin beharra daukate jostailuak segurtasun berme batzuk bete behar dituela, hau da, erabiltzaileari ez diola arazorik edo

istripurik sorrarazi behar. Askotan, produktuaren ezaugarri fisiko, mekaniko edota kimikoek ez dute segurtasun horren zantzurik agertzen eta horretarako oso garrantzitsuak izaten da etiketetan markatuta etortzen den informazioa. Halaber, etiketa horretan CE marka agertzen dela egiaztatu behar du erosleak, horren bidez bermatzen da-eta oinarritzko arauak betetzen direla.

Halaber, kontuan eduki behar dugu istripu asko jostailuari emandako erabilera okerragatik gertatzen direla; izan ere, horrekin ibili behar ez zuten umeek erabiltzeagatik edo modu ez-egokian jolasteagatik gertatzen dira askotan ezustekoak. m

### RADAR BERRIA IPINI DUTE ERANDIOKO N-637 ERREPIDEAN

Kukularra inguruan dagoen N-637 errepideko 11,4 kilometroan radar berria ipini du Eusko Jaurlaritzak, bertan istripu larregi gertatzen dela uste duelako (azken bost urtean 1.304 istripu egon dira). Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, errepidea norabide bitan banatzen den lekua hautatu dute gailua jartzeko eta gura duten lekurantz orientatu ahal izango dute. Beraz, hemendik aurrera Barakaldorantz gehienez 80 kilometro orduko abiadura joan ahal izango dira ibilgailuak eta Leioarantz 60 kilometro ordukoan.

### ERANDIOKO MENDIGOIZALEAK-EN 2007KO PROGRAMA

2007an burutuko dituzten irteeren programa kaleratu du Erandioko Mendigoizaleak elkarteak. Guztira, 20 bat igoera egitea aurreikusuten dute antolatzaileek. Daborduko lehenbizikoa egin dute Araban dagoen Belabia mendira (970 metro). Izena eman gura duenak martitzenetan egin dezake, 19:30etik 20:00etara.

Informazio gehiago: 615 717 562

### MARTXOAN HASIKO DIRA URDANETA KALEA KONPONTZEN

Martxoan hasiko dituzte Altzagako auzoa erriberako errepideagaz lotzen duen Antonio Urdaneta kalearen eraberritze lanak. Behin lanak amaituta, errepideak 4 metroko zabalera edukiko du eta noranzko bakarrekoa izango da. Espaloia ezberdina izango da kale osoan, hau da, iparraldean 2,80 metrokoa izango den bitartean, hegoaldean gutxienez 3 metro edukiko ditu. Gainera, zabalagoa den lekuan zuzatzen landatuko dituzte. Ibilgailuak, beraz, ezin izango dira aurrerantzean kale horretan aparkatu. Lanen aurrekontua 978.000 eurokoa da.

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz



## AGENDA 21 OSATZEKO HERRITARREN LAGUNTZA ESKATU DU UDALAK

Agenda 21 osatzeko laguntza eskatu diete herritarrei Sopelako Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak. Ingurugiroa, oreka ekonomikoa eta justizia soziala errespetatuz, udalerriko auzokideen bizi kalitatea hobetzea da ekimenaren helburua. Hori lortzeko, aipatutako hiru arloak kontuan hartuko dituen galdetegia prestatu dute, Sopelako bizilagunek bete dezaten. Datu pertsonalak jartzea, aldiz, ez da beharrezkoa izango.

## MAITASUN ESKUTITZEN LEHIAKETAN AURKEZTEKO EPEA IREKI DUTE

Sopelako Kultura Sailak antolatutako "Maite, maitea..." maitasun eskutitzen lehiaketan parte hartzeko epea irekita egongo da otsailaren 7ra arte. Gaia librea izango da, beti ere maitasunari lotuta. Lehiaketa lau kategoriatan banatuta egongo da: 12 urtetik 16ra; 16 urtetik 18ra; 18 urtetik 60ra eta 60tik aurrerakoak. Idazlanak Hall Kulturalean (astelehenetik barikura, 18:00etatik 21:00etara) edo Turismo Bulegoan (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) aurkeztu beharko dira.

## GAZTEENTZAKO AISIALDIA

14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduerak prestatzen dabil Sopelako Gazteen Informazio Bulegoa eta, gauza askoren artean, neska-mutilek bete beharreko galdetegia prestatu du. Ekintzak antolatzerako orduan gazteen gustuko gauzak zeintzuk diren jakitea da egitasmoaren helburua. Bestek beste, honakoak dira Udalak proposatzen dituen jarduerak: irteerak elurretara, spinning, kayak, argazkilaritza ikastaroa, rafting... Otsailaren 2ra arte egongo da irekita proposamenak aurkezteko epea. Informazioa: 944 065 519.

## Kulturartekotasuna

Immigrazio Zuzendaritzak antolatutako **bideo lehiaketan** garaile irten da Sopelako Institutua



Jose Luis Ruiz zuzendaria pozik agertu da ikasleek burututako lanagaz

**Kulturartekotasuna nire auzoan** izenburupean Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Sailak antolatutako I. Bideo Lehiaketan lehenbiziko saria eskuratu du Sopelako Institutuak. *"Ikastetxea eleaniztasun proiektu batean sartuta dago bete-betean, izan ere, eskualdean A ereduak daukan bakarra gurea izanik, etorkin piloa dauka. Hori kontuan hartuta, lehiaketarena aukera paregabea zela iruditu zitzaigun"*, azaldu du Jose Luis Ruiz institutuko zuzendariak.

Etorkinak Euskal Herrira zergatik etorri diren, aldaketa zelan bizi izan duten, arazorik nabarientzat zeintzuk diren... erakutsi gura

izan dute proiektuan parte hartu duten ikasleek. Horretarako, atzeritiko etorritako euren ikaskideak elkarriketatu dituzte. *"Hasieran, ikasle batzuek aurreiritziak zituzten, baina orain beste modu batera ikusten dituzte eta euren bizimodua hobetzera etorri direla ulertzen dute"*.

Lana burutzeko orduan ikasleak ez dira bakarrik egon; Marta Perez-Yarza irakaslearen eta Getxoko Berritzeguneko Joseba Lauzirikaren laguntza eduki dute-eta. *"Ez da gauza erraza izan. Askotan eskola orduetatik kanpo behar egin dute eta ikasleek gain irakasleak ere animatu behar izan ditugu"*. m

Javier Ardanaz > DYako arduraduna Uribe Kostan

**"Uribe Kostan gertatzen diren larrialdiei arinago egin ahal izango diegu aurre"**



Akilino Arriola kalean dago DYaren egoitza berria

**Zortzi** urte dira DYak Uribe Kostako biztanleei zerbitzua eskaintzen diela. Orain arte Areetan eduki du egoitza bakarra, baina Osakidetzagaz ikerketa bat egin ondoren, eskualdeko herrien eskariei modu egokian erantzuteko Sopelan ere base txiki bat irekitzea erabaki du. *"Horrela, Berango, Sopela eta Urduliz inguruan gertatzen diren larrialdiei arinago egin ahal izango diegu aurre"*, azpimarratu du Javier Ardanaz Uribe Kosta eskualdeko DYako arduradunak. Horretarako, Areetako Negubide kalean daukaten egoitzagaz koordinatuta jardungo du Sopelako DYak; hortaz, behar izanez gero, Getxon ere lagunduko du.

Hainbat izango dira instalazio berrietan eskainiko diren zerbitzuak. Izan ere, inguruetako larrialdiei erantzuna emateaz gain, jaietan, ekitaldi kulturetan, lasterketetan... ere lagunduko dute. Horrez gain, mendian galdutako pertsonak erreskatatzeko profesionalak eta hondartzetan ibiliko den txirridulari taldea edukiko ditu Sopelako baseak. *"Gure heziketa eskola ahaztu barik, sorospen*

*eta larrialdietako teknikariak trebatzeko ikastaroak eskaintzen ditugu. DYAn sartzen den edonork ikastaroak gainditu behar ditu eta Sopelan ere antolatuko ditugu"*, jakinarazi du Ardanazek.

Materiala ere ugaria izango da: anbulantzia, erreskaterako ibilgailua, jaietan erabiltzeko unitate mugigarria, kanpaina ospitalea... *"Nazioarteko sorospen unitatea ere*

### «Nazioarteko sorospen unitatea ere edukiko du Uribe Kostak»

*edukiko du Uribe Kostak. Izan ere, Pakistan, Filipinetako, Indonesiako... hondamendietan laguntzen ibilitako talde batek eskualdean dauka egoitza"*, azaldu du Ardanazek.

Hasiera batean, 12 orduz egongo da irekita bulego berria Akilino Arriola kalean, baina aurrerago 24 orduz funtzionatzea aurreikusi du arduradunak. *"Beraz, oraingoz hiru langile besterik ez dira egongo bertan"*, zehaztu du. m

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

Getxoko Andra Mari  
Zerbitzu Estazioa

etxera  
eroaten dizugu  
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km  
Getxo / Tel: 94 430 15 00



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

# LAIKAK Taberna

## Zatoz gure tabernara!

Bentatxu, 2  
48600 Sopela



**ZINEGOAK  
BERANGOETAKO  
KULTUR ETXEAN**

Aurtengo Zinegoak zinema-jaialdia Berangora helduko da otsailaren 2an. Antolatzaileek Blzkaik osotik zabaldu nahi izan dituzte emanaldiak eta Berangoko Udalak honetan parte hartzea erabaki du. Zinegoak, gay, lesbiana eta transexualen inguruko gaiak lantzen dituzten filme eta dokumentalak biltzen ditu, normalizazio bidean laguntzeko asmoz. Emanaldia Berangoetako kultur etxean izango da otsailaren 2an, arratsaldeko 20:00etan.

**EUSKARAZKO WEB  
ORRIEN GIDA**

Bizkaiko 30 udalerrik, Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) batera, Interneteko euskal edukien gida kaleratu dute. Berangoko Udalak proiektuan parte hartu du inguruko beste herri batzuekin. Blogak, jokuak, aldizkari elektronikoak, web orriak... denetarik aurki daiteke liburuxkan eta honekin batera banatuko den CDan. 16 eta 26 urte bitarteko gazteentzat zuzenduta egongo da eta 18.000 ale banatuko dira parte hartu duten herrietan. Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltelek babestu dute proiektua.

**URTE BATEKO  
UMEENTZAKO IKASGELA  
BERRIAK BERANGON**

Berangoko Udalak Santo Domingo de Guzman ikastetxe publikoko eraikinetakoa bat berriztuko du, bertan urte bateko umeentzako hiru ikasgela berri jartzeko. Azken urteotan jende gazte asko hurbildu da herrira. Honek zero-hiru urte bitarteko umeen kopurua asko igotzea ekarri du eta, horregatik, horientzat gaur egun dauden ikasgelak txiki gelditu dira. Egokitze lanak 2007-2008 ikasturterako amaituta egotea aurreikusita dago.

**Aurrekontuak prest**  
Kutsu sozialeko apustua egin du Udalak



Zabor edukiontzia lur azpian sartuko dituzte Berangon

**Bi atal nagusitan** banatuta egongo dira aurtengo aurrekontuak. Alde batetik, gizarte laguntzak ugarituko dira eta, bestetik, azpiegiturretan inbertsio garrantzitsua egingo da. Guztira 6.503.551 euro erabiltzea aurreikusi du gobernu taldeak eta honekin, legegintzal-di honetarako zituen egitasmo guztiak amaitutzat ematea espero du.

Etiket kanpo behar egiten duten emakumeek lana eta familia errazago uzta dezaten, 50.000 euro bideratuko dituzte haurtzaindegietara. Ikastetxe publikoan hiru ikasgela berri eraikiko dituzte zero-hiru urte bitarteko umeentzat. Laguntza eta lankidetzara egitasmoak bultzatzeko, diru sarreraren

%0,7a garapen egitasmoetara zuzenduko dute. Euskararen normalizaziorako proiektuei eskainitako laguntzak ere indartuko dituzte. Uribe Kostako Mankomunitateak euskara sustatzeko martxan dituen proiektuei emandako diru-laguntzak %20 handituko ditu-eta Udalak.

Azpiegiturrei dagokienez, zabor edukiontzia lur azpian sartzeko lanak hasi eta garbiketa makina berriak erosiko dituzte. Horrez gain, farola guztiak aldatu nahi dituzte, argi-kutsadura murrizteko asmoz. Garbitze sistema digitalizatu-ko dute eta horretarako GIS sistema berri-zailea sartuko dute. m

**Javier Garrido > Sahararen aldeko boluntarioa**  
"Saharauiek ia **30 urte** daramatzate **errefuxiatu** moduan"



Javier Garrido hirutan egon da Sahararen hango egoera zein den bertatik bertara ikusteko

**Javier Garrido** Gorlizen Herri-Lanetako zinegotzia izateaz gain, Sahararen alde lan egiten du ahal duen guztietan. Orain, esate baterako, Aste Santuan Saharara egingo duten bidaia prestatzen dabil buru-belarri. Hiru urtetan egon da han eta aurten ere ez du kale egingo. "Bertako egoera oso txarra da, orain gauza batzuetan lehen baino hobeto dauden arren: hozkailu batzuk dauzkate, eguzki xaflen bidez lortutako argindarra eta ura kanpamendutik apur bat hurrago dago orain", azaldu du Javier Garridok.

Zinegotziak hara joateko ordua itxaroten duen bitartean, Euskadiko Sahararen aldeko elkarteek Gorlizen elikagaiak biltzeko antolatutako kanpaina parte hartzerantz animatu gura du jendea. "Usteltzen ez diren produktuak eskatzen ditugu: arroza, emakumeentzako konpresak, olio...". Bilketarako hainbat leku ipini dute gainera: udaletxea, ikastola eta Kultur Etxea. Horrez gain, gura duenak diruz ere lagun dezake (kontu korrontea: 3035-0080-94-

0800054177).

Batutako elikagaiak eta gainerako produktuak kamioietan eramango dituzte Sahararako basamortuan dauden Tindufeko kanpamenduetaraino. "Bertako herritarren kopurua oso arin hazten ari da eta gero eta gauza gehiago behar dituzte", nabarmendu du Javierrek, "pentsa ia 30 urte daramatzatela errefuxiatu moduan".

**«Usteltzen ez diren  
produktuak eskatzen  
ditugu»**

Saharari bere elkartasun osoa helarazten dion herria da Gorliz eta basamortuko bizilagunen alde ekintza piloa antolatzen du. Udan, esaterako, gorliztarrek bertatik etorritako umeak hartzen dituzte euren etxetan (ume bat hartu gura duenak Udaletxera deitu besterik ez dauka) eta Udalak ahal duen guztietan Euskal Fardoagaz zein Eusko Jaurlaritzagaz elkarlanean jarduten du. m



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



VIEJO

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

**cianoplan Reprografía**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopia •
- Karteak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiatu kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
- ermarkaketak •





## PASEALEKU BERRIA GORLIZEN

Gorlizko Udala, herri gunea Uresaranse auzoarekin lotuko duen pasealekua eraikitzen hasiko da martxoan. Gaur egun, bide hori egin nahi dutenek, kiroldegia gurutzatu behar dute. Baina, ibilbide berriak, kirol instalazioak ixtea ahalbidetuko du. Bideak argiztapen berezia, paperontzi eta eserleku berriak eta zola ez labaingarria izango du. Udalak 542.957 euro emango ditu 500 metroko pasealekua eraikitzeko.

## LEMOIZKO ITSASONTZI ZAHARRENAK ARMINTZAKO PORTUA APAINDUKO DU

Francisco Mendizabalen *Lutxia* arrantza ontziak Txorropes pasealekua apainduko du. 1961ean Asturiaseko Anselmo Artime ontzioletan eraikitako itsasontzia oso garrantzitsua da herritarrentzat, Armintzako portuko zaharrena da eta. Momentuz, berreraikitze lanetan dago, baina, hurrengo hilabeteetan, pasealekuan jartzeko prest egongo dela jakinarazi du alkateak.

## IGOGAILU BERRIA PLENTZIAN

Herri gunea alde zaharrarekin lotzen duen igogailua martxan jarri dute Plentzian. Asteko zazpi egunetan egongo da eta gaez bakarrik itxiko dute. Igogailua, kristalezko kutxa batez eta altzairu herdogaitzez egina dago eta telefono bat izango du, arazoak izanez gero laguntza eskatu ahal izateko.

## GORLIZ

### Hondartzaren egokitzapen lanak hasiko dira



Gorlizko hondartza

**25 urte baino gehiago** bueltaka dabilen proiektua martxan jarriko dute otsailetik aurrera. Gorlizko Udalak, Ingurumen Ministerioaren baieztapena lortu du eta hila-bete honetan hasiko ditu hondartzako egokitzapen lanak. Obrak 18 hilabetez luzatzea aurreikusita dago eta 7.101.368 euroko inbertsioa beharko dute.

Proiektu honi esker, 61.475 metro hondartza berreskuratuko dira eta duna zelaia bere onera bueltatuko da. Horretarako, Astondon dauden tabernak eta jatetxeak bota

beharko dituzte. Gainera, Plentziako mugan hasi eta Astondoko kaian bukatuko den 1.300 metroko pasealeku bat moldatuko dute. Ospitalearen eta aterpetxearen artean dauden aparkalekuak desagertuko dira eta, oinezkoentzako ibiltokiaren mugan, beste bi eraikiko dituzte hauen orde, zerbitzuetarako hiru eraikinekin batera.

Horrez gain, hondartzaren egokitzapen proiektuaren barnean, Zubitzu eta Kukulu erreken uharka salbatzeko, bi ibilbide eraikiko dira oinezkoentzako gunearen azpian. m

# Urt. 29 - ots.12

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### SOPELA

► **Secuencia imaginada.** Lourdes Villa. Erakustaretoa. Urtarrilaren 29ra arte.  
► **Juan Manuel Aresen margolanak.** Erakustaretoa. Otsailaren 1etik 18ra arte.

### GETXO

► **Arte Ederretako irakasleak.** Algortako erakustaretoa. Otsailaren 5etik 17ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.  
► **Margo figuratiboa.** Emma Gutierrez eta Rocio Araya. Erromoko erakustaretoa. Otsailaren 5etik 17ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

### LEIOA

► **Asier Bastidaren argazkiak.** Kultur Leioa. Otsailaren 11ra arte. 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.  
► **The Beattles.** Kultur Leioa. Otsailaren 18ra arte. 10:00-20:00.

## ZINEMA

### GETXO

► **La noche de los girasoles.** Getxo Antzokia. Otsailak 7, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.  
► **De fosa en fosa.** Jatorrizko bertsoia. Getxo Antzokia. Otsailak 9, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.  
► **Cristobal Molon.** Umeentzako zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Otsailak 11, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

### LEIOA

► **Eragon.** Auditorium. Urtarrilak 29, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.  
► **Pequeña Miss Sunshine.**



► **Bizarra Lepoan elkarte**

### Bertsolaritza ikastaroa 0-tik hasita

Bizarra Lepoan elkarteak bertsolaritzaren inguruko 15 orduko ikastaroa eskainiko du, urtarrilaren 30etik apirilaren 3ra bitartean. Eskolak arratsaldeko azken orduan izango dira, 20:30etik 22:30era zehazki. Irakaslea, berriz, Josu Landeta izango da eta Algortan dagoen Aldai patronatuan eskainiko ditu klaseak. Izena emateko epea irekita dago oraindik eta prezioa 25 eurokoa da (20 euro Bizarra Lepoaneko bazkideentzat). Ikastaroan parte hartzeko ez da beharrezkoa aurretik bertsolaritzaren inguruan ezagutzak edukitzea, azalpenak maila baxuenetik hasiko dituzte-eta. Ikastaroaren inguruan informazio gehiago gura izanez gero, 94 491 43 57 telefonora deitu.

• **Non:** Aldai • **Noiz:** urtarrilaren 30etik apirilaren 3ra • **Ordua:** 20:30-22:00

Auditorium. Urtarrilak 30, astelehena. 20:00. Sarrera: 3 euro.

► **Zinegoak.** Laburmetrai eta dokumentalen proiektzioa. Auditorium. Urtarrilak 31 eta otsailak 1. 20:00. Sarrera gonbidapenagaz.  
► **Eres muy guapa.** Auditorium. Otsailak 6, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

### SOPELA

► **Zinegoak.** Laburmetrai eta dokumentalen

proiektzioa. Hall Kulturala. Urtarrilak 31. 20:00.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Tejas verdes.** Luna Llena taldea. Getxo Antzokia. Otsailak 9, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.  
► **Graffiti de amor político-social.** Simulacro taldea. Getxo Antzokia. Otsailak 10, zapatua. 20:00. Sarrera: 9/7 euro.

## BESTEAK

### GETXO

► **Santa Agedako entsaioa eta jaia.** ALBEK antolatuta. Aldai Patronatua. Urtarrilak 30, martitzena. 20:30. Otsailaren 4an minipoteoa leku berean eta 15:00etan jatekoa The Piper's Irish Pub tabernan (bertan eman behar da izena). Prezioa: 14,50 euro.  
► **ARCORA bidaia.** Izena emateko epea: otsailaren 1etik aurrera. Algortako Ecuador bidaia agentzia. Prezioa: 121 euro.  
► **Pirritx eta Porrotx pailazoak.** Getxo Antzokia. Otsailaren 2tik 4ra arte. 16:30 eta 18:30. Sarrera: 3,50 euro.  
► **III. Gazta Azoka.** Algortako Geltokia plaza. Otsailaren 9tik 11ra arte. 11:00-14:30 eta 17:00-21:30.

### BARRIKA

► **San Blas eguna.** Elizaren inguruan. Otsailak 3, zapatua. 11:30.  
► **Mozorro tailerra.** Udaletxea. Otsailak 10, barikua. 11:30.

### LEIOA

► **XVIII. Santa Ageda kantu Txapelketa.** Auditorium. Otsailak 4, domeka. Sari banaketa otsailaren 10ean izango da, 12:00etan.  
► **Zirko tailerra.** Aterpe. Otsailaren 7tik maiatzaren 9ra arte. Asteazkenero, 18etatik 20:00etara. Prezioa: 22 euro. Plaza mugatuak.  
► **Gomaespuma mozorro tailerra.** Aterpe Otsailak 12 eta 14. 18:00-21:00. Prezioa: 4 euro. Plaza mugatuak.

### ERANDIO

► **Arte plastikoaren tailerra.** Postetxe zaharra. Otsailaren 5etik maiatzaren 26ra arte. 18:30-21:30. Prezioa: 92 euro erroldatuentzat eta 125 euro ez erroldatuentzat.  
► **Jantokiko begirale ikastaroa.** Otsailaren 9ra arte izena emateko. Gazte Informazio Bulegoa. Prezioa 50 euro.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



## ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA





## Galea 2007-01-19

Baldintzak onak ziren: haize egokia, itsasoaren norabide ona eta olatu handiak (2,30m-3m). Baina hau ez zen nahikoa izan Oxbow Punta Galea Big Challenge olatu handien txapelketa burutu ahal izateko. Izan ere, gutxienez lau metroko olatuak eskatzen ditzuzte antolatzaileek norgehiagoka egin ahal izateko. Hala ere, hara bildu ziren zale guztien gozamenerako erakustaldi polita egin zuten lehiaketan parte hartu behar zuten surfariak, besteak beste, Pablo Solar, Zumo, Iker Fuentes edota Pello Etxebarria.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







## Uriolak Erromon

Larri gabiltza aurton, eta larri  
ibili ginen orain dela 30 urte.  
Urak gauzka eta gintuen  
arduraduta. Alabaina, zein ardura  
desberdinak, ezta?  
1977an itota genbiltzan, 2007an  
egarri gara. Ez da jaio naturaren  
gogoak gizakion nahietara  
egokituko dituenik! Momentuz  
behintzat... eta hala bedi!  
Bada gizakia baino ahalmen  
boteretsuagorik; eta eskerrak!



[berbetan]

“Xabi ala Xabier?”, horra gure lehenengo itauna. “Jesus, galdera existentzialak!”, bat-bateko erantzuna, bertsolari senak agindutakoa. “Lagunek Xabi esaten didate, familiakoek Xabier”, gehitu du gero, baina horrek ez digu asko lagundu. UKn, lagun bezain familiarakoa da Paya, eta ez bakarrik Urbitakora atalean oparitzen dizkigun bertsoengatik. Ez gara haren lagunarte/familia bakarra ordea. Argian ere idazten ditu bertsoak, eta aldiro, blog bat elikatzen du *Bizkaie!* agerkari elektronikoan. Irakasle ere badihardu, noiz Mondragon Unibertsitatean, noiz ALBE bertso eskolan, han ikasitakoaren zati bat itzultzen. Eta ez dugu “itzultzen” berba kasualitatez aukeratu; Itzulpenginta eta Interpretazioa ikasi zuen, eta tarteka lanak egiten ditu arlo bietan. *Peter Pan* da euskaratu duen azken lan ezaguna, baina ez bakarria. Harrigarriena da horiek guztiak bere “ohiko lanetik” kanpo egiten dituela: Lanku bertso zerbitzu enpresan dabil, material sorkuntzan. Horiez guztiez berba egin dugu Payagaz, baina zoritxarrez gai bakarrerako lekua besterik ez dugu izan orriotan: abenduan irabazitako Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.

# Xabier Paya

## Txapel azpian burua

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Algortara etorri da Bizkaiko txapela, irakurri dugu interneten. Getxo ei da —Andoni Egañak esana aldizkari honetan— urtean bertso saio gehien antolatzen den Eusal Herriko udalerrria, eta ALBE izango da gehien hazi den bertso eskoletako bat. Horren guztiaren ondorioa da txapela Algortara etorri izana?

—Uste dut kontestuak badaukala garrantzia. Ez dut esango “errua” daukanik, baina egia da Getxon bertsozaletasunak gora egitea, bertso saio gehiago egotea, eta bertsolaritzari ere beste irudi bat ematea, onuragarria behintzat badela, norbere jardunean lasaiago ibiltzeko. Baina hori egite hutsagatik inor ez da txapelduna, bestela hemen txapeldun asko egongo lirakeke. Beste zati bat dago, nik neure konturara landu dudana batez ere, bertso eskolan baino. Baina bai, garrantzia izan du bertsolaritzak lekua daukan hiri batean bizitzeak.

—Bizkaiko txapelketako finalaz gehien aipatu den bertsoa punturik emon ez zizun bakarria izan da hain zuzen: agur bertsoa. Erdarazko azken puntuak, batez ere. Zelakoa da paiatarren harremana euskara, euskaltzaletasun eta abarregaz?

—Ez dut esango elebiduna naizenik, ez dudalako uste elebitasuna existitzen denik. Uste dut diglosikoa naizela, euskara gaintetik daukadala baina ez beti, ez gai guztietan. Esate baterako, sentimendu adierazpenean erdal-dunagoa naiz. Adbidez, benetako haserrean. Amak ez zidan errieta euskaraz egiten, gaztelaniaz egiten zidan; hitzek karga hartzen dute gaztelaniaz. UKn idatzi nuen anaia “putakume” deituko banio Goenkalen sentituko nintzatekeela, eta aldiz, “hijoputa” deitzen

### “Amari eskertu behar nion hasieran fede itsua izana gugan”

badiot “hijoputa” deitzen diot, horrek daukan kargarekin. Nik benetan ez diot kalterik egin nahi nire amari, benetan eragin nahi dudana nolabaiteko mina da, hitzen bitartez. Ez dut esanahi semantiko zehatza bilatzen. Hortik aurrera, gure inguruan oso zabaldua dagoen kontzeptu bat da euskalduna izan gabe euskal kontzientzia izan daitekeela, eta badago euskal hitzuna izan gabe bere burua euskalduntzat jotzen duenik. Hor koka nitza ke nik gure gurasoak, euskaldunak izan ez

baina beti euskararen aldeko nahiko apustu garbia egin zuten gurekin, eta hasieratik bi hizkuntzatan bizitzeari etekina eta abantailak baino ez dizkiote ikusi. Nik batzuetan gaztelaniaz hitz egiten dut, beste batzuetan euskaraz. Lanak eskatzen badit, ingelesez ere bai. Egin behar dena gaztelania ez kriminalizatzea da. Jendea bultzatu behar da euskaraz hitz egitera, baina erdaraz hitz egiteagatik... Ez da, Peter Panen moduan, “*esaten baldin baduzu maitagarriak ez direla existitzen maitagarriak*”

*hiltzen dira*”. Erdaraz hitz egiten baduzu ez zara euskaldunak hiltzen ari. Egin erdaraz, ez dugu ukatuko errelitatea zein den, baina gero zeuk erabaki zure hizkuntza zein den, edo borrokatu zaitez euskaraz bizitzeko eskubidearen alde.

—Amari esker oneko bertso hura, jeneralean, ondo hartua izan da bertsolaritza munduan, txoritxo batek esan digunez... Ez dakigu horretaz pentsatu duzun ere.

—Egia esan, bertso hori duela pilo bat urte





ponentsatu nuen. Uste nuen inoiz gutxieneko errekonozimendua edukiko zuen zerbait egiten banuen - hau da, Bizkaiko txapela-, amari eskertu behar niola hasieran fede itsua izana gudan. Gu Berangoko American Schoolen ibiltzen ginen udatan, eta behin Frediri deitu zioten asteburu pasa batean joateko bertsolari batzuekin. Gure amari berehala etorri zitzaion: “¿Cómo va a faltar a la American School?”. Zer egiteko, zer zen bertso kontu hura? Handik honaino iristeko, argi dago berak ahalegin bat egin behar izan duela, ikuspegi aldaketa bat, baina ez hori bakarrik. Zenbat bertso afaritaran eraman gaituen, zenbat bider egon den ordu txikietara arte, askotan afarian isilik, eta beste batzuetan, euskararen muga traba gerta ez zedin ez berarentzat ez guretzat, afaririk kanpo, gu han utzi eta buelta bat ematen. Orduan, pentsatu nuen: egunen batean eskertu behar-ko diot.

—Beraz, bezeneukan bertsoa berbaz berba pentsauta...

—Azken lau puntuak bai.

—Marka da gero, bat-bateko saioa agurtzeko urteak dituen alea erabiltzea...

—Bai. Txirritak-eta, bertso idatziak egiten zizutenean, buruan gordetzen zizutzen eta denborarekin aldatuz zihoazen. Modu berean, denboraz ontzen joan da bertso hori. Batez ere, niri azken esaldia etorri zitzaidan. Egunen batean esan egin behar nion, erdaraz, “*esta txapela es tuya*”. Berak ondo uler zezan. Gero pentsatu nuen azken esaldi hori gutxi zela, justifikatu egin behar zela... eta harago joan nintzen. Gaztelaniaz kantatzea mila arrazoirengatik erabaki nuen. Handiena, neurekoiena: momentu hartan berak nik esaten zuena ulertzea nahi nuen. Bide batez, eta behin neurekoiariara bajatuta, aukera ematen nion beste hainbat erdaluneri bertso zati hori ulertzeko. Geroago pentsatu nuen, eta hala da gaur egun —hala adierazi didate behintzat—, jende asko dagoela nire egoeran: aurreko belaunaldia erdaliduna da baina gero berriz egin du apustua euskararen alde. Eta azken tranpa bat ere bazegoen: nik bizkaieraz kantatu nuen txapelketa osoan zehar, eta azken bertsoan erdaraz. Nolabait esateko: bale, nik bizkaieraz kantatzen dut, hori ere egiten dut, baina ni hemen-dik nator, ni hau naiz. Uste dut gaur egun

Bizkaian, erdal gunea deritzon zati handi horretatik datorrela bertsolari gehien. Bertso eskola gehien ere inguru horretan dago. Eta keinu bat ere merezi du horrek.

—*Argia* aldizkarian bertsoak idazten dituzu aldiro. Finalaren atarian egin zenuen sortan, haxe izan zen azkenekoa:

Eta XABI ez al da tipo geniala  
Esaten du: «onenak irabaz dezala»  
baina guk badakigu,  
Bizkaia bezala,  
bera dela onena,  
ez ote da hala?  
(Amamarik ez badu bost eros ditzala)

Benetan zeneukan sentimendu hori?

—Finala baino aste bi lehenago idatzi nuen. Finalerdia gauditua neukan. Eta liberazio handia sentitu nuen finalerdia gauditutakoan. Nik finalerdietan eduki nuen-eta benetako presioa. Jende askok esaten zidan: faborito, faborito... eta ni ez nengoen ziur ezta finalean egongo nintzen ere. Horrek presio handia eragin zidan, baina finalean sartu nintzenez gain hartu nion presio hori, eta pentsatu nuen: hainbestek ikusten banaute faborito, lor dezaketalako da. Horregatik bertso hori. Bukarako umore ikutua, amamarena, babeserako da.

## “Ni ez nengoen ziur ezta finalean egongo nintzen ere”

—Finalen Elortza eta Iturriaga egon ez izana nabarmendu izan da. Interneten honako izenburua zeukan artikulua topatu dugu: *Bizkaia deskafeinatua*.

—Artikulu hori finala baino lehenagokoa da. Bazegoen beldur hori, ezjakintasunetik abiatuta beharbada, Bizkaian genbiltzanak gehiegi ezagutu gabe.

—Bertsotan, Durangotik kanpo ezer existituko ez balitz bezala edo?

—Hala da. Ematen du Bizkaian bertsolari bi horiek baino ez daudela, eta nik diot: gurega-

nako errespeturik inork ez badauka, behintzat Amuriza, Lopategi eta Jon Enbeita ez ditzatela ahaztu. Horiek ere, sentitzen dugu, baina bertsolariak dira, eta handiak izandakoak, eta handiak izango dira beti. Hori alde batera utzita, uste dut erronka handia zela guretzat Bizkaia Igor eta Unai baino gehiago dela erakustea. Eta uste dut onuragarria izan dela beraiek parte ez hartzea. Beharbada txapela inoizko gertuen ikusi dugulako, eta inoizko ahalegin handiena egin dugulako.

—Haiek egonda ez zenuten egingo, ala?

—Ez dakit hala egingo zutekeen jende guztiak. Aurrerapausu handiak egon dira askoren bertsokeran: teknikan, neurrietan, bizkaierarako saltoetan... jende askok lan egin duela ikusi da. Bestetik, bageneukan erronka bat: Igor eta Unai zeudenan, finalera iristea gozamina zen; saio eskasa eginda ere, beraiek ona egingo zuten finala ona izango zen. Baina aurten denok egin behar genuen ahalegina.

—842,5 puntu lortu zenituen. Non irabazten edo galtzen da puntu erdi hori?

—Egia esan, bertsolaritzan puntuazioak daukan subjektibotasuna... Begira, final horretan Iratxe hirugarren gelditu zen bigarrenetik puntu erdira. Horrek zer esan nahi du? Beharbada, bost epailek Iratxe zeukatala aurretik, baina seigarrenak puntu alde handiagorekin zeukala Etxahun, eta Etxahun sartu zela. Hain da subjektiboa puntu kontua, beti izango dela gatazarako gaia. Horregatik, txapelketetan konfiantza ezinbestekoa da hasieratik.

Hainbeste gauza dago: “Hau bestearen laguna da”, “honek jakingo du bizkaieraz ondo?”, “eta erabili dudana esatera ulertuko du?”... Zalantza saihestezinak dira, baina konfiantza ezarri beharko da edozeren gainetik, bestela nora goaz?

—Kontua da: bertsolariok badakizue puntu erdi hori zertan den?

—Ez. Puntuaren arabera zehaztuta dagoen gauza bakarra izango da bertsoa osorik kantatu bada, gelditu gabe, pototik gabe eta akats larririk gabe, euskara normal-normalean, hori

gutxienez bost dela. Baleko bertsoa. Baina bostetik hamarrera beste mundu bat dago. Nola neurtu? Kristoren bertsoa egin arren, baliteke esandako zerbait epaileetako bati hainbeste gustatu ez izana, eta puntu erdi gutxiago jarriko dio. Jakina, horretarako daude sei epaile, orekatzeko.

—Sarean topatutakoa, zutaz: “Orain Xabi Paya da, ez Frediren anaia...”.

—Premutasunez, niri Frediren anaia izatea tokatzen zait. Esparru askotan Frediren anaia naiz, eta bertsolaritza Frediren esparrua zen. Hainbat urtean bere-berea izan da, eta gero, bat-batean ni agertzen nintzen satelite moduan, eta beti nintzen *Payita*, edo *Paia-txiki*, edo Frediren anaia, edo... Nire izena ez da batere zaila, baina jendeak ez zuen ikasten. Duela bi urteko Bizkaiko txapelketan nire helburua hori zen: edertero, Frediren anaia naiz, oso pozik nago horrekin, baina nik ere badakit bertsotan. Hori erakutsi baino ez nuen nahi, eta uste dut erakutsi nuela. Finalera heldu nintzen, gero jarraitu egin dut, eta uste dut orduan lortu nuela nire helbu-

ruetako bat: askotan, Paia anaiak terminoa erabiltzea. Nik gehiago ez dut nahi. Familia barruko hegemoniak hor daude eta ez dut bertsotan hierarkia hori aldatu nahi. Baina konturatu naiz txapela irabazita ere Frediren anaia izaten jarraituko dudala. Ondo hartzen dudana zerbait da. Txapela jantzi nuen, lehenengo argazkilaria etorri zitzaidan eta esan zidan: “*Fredi, jarri hor mesedez!*”. Orduetik hiruzpalau aldiz deitu didate Fredi.

## “Erronka handia zen Bizkaia Igor eta Unai baino gehiago dela erakustea”

Ez dugu ukatuko: Fredi ezaguna da bertsoan, ni baino askoz lehenago hasi zen bertsoan. Dena den, pertsona desberdinak gara, estilo desberdinak dauzkagu, eta ez dago zertan gu etengabe konparatu. Ematen du familia batetik bakar bat atera daitekeela ona.

—Bertsolaritzak jan digu ia elkarrizketa osoa, baina nik baneukan hau itauntzeko

gogo: zer da gatxagoa, idazle onaren lana itzultzea, edo txarrarena?

—Txarrarena. Zailagoa da txartasunari eustea. Hasteko, errazagoa idazlea hilda badago, ez dagoelako kezarik. Izan ere, itzultzailea beti da txarra. Itzulpena txarra bada, berak dauka errua. Itzulpena ona bada, ez dago itzultzaile-rik. Hori da gure helburua: ez existitzea, ez dadila nabaritu itzulpena. Askotan, denbora gutxi ematen zaigu, txarto ordaintzen, duin-

tasunik ez... Esker txarreko lana da, baina erronka polita. Aurrekoan, “*curro curro como un burro*” esaldia itzuli behar izan nuen. Nola egin? Azkenean, sortu egin behar da, baina sortzea traizioa da. Traduttore traduttore, eta abar. Beti ibiliko gara muga horretan. Zailagoa da lan txarra itzultzea, baina lana oso ona denean, askotan, ezin da itzuli ere egin, eta sortu egin behar da ezinbestean. m

# Egonaldiak euskaraz zure lagunekin!

1995 eta 2000 bitartean jaiotako ume euskaldunentzat

NOIZ	NORA	PREZIOA	MATRIKULA
Otsailaren 16tik 18ra <i>Del 16 al 18 de febrero</i>	BEIZAMA	33,28 €	Otsailaren 1,2,5 eta 6a <i>1, 2, 5 y 6 de febrero</i>
Apirilaren 10etik 13ra <i>Del 10 al 13 de abril</i>	ARANTZA	58,24 €	Martxoaren 19tik 22ra <i>Del 19 al 22 de marzo</i>
Ekainaren 1etik 3ra <i>Del 1 al 3 de junio</i>	SASTARRAIN	33,28 €	Maiatzaren 17,18,21 eta 22 <i>17,18,21 y 22 de mayo</i>

**Informazioa**  
EUSKARA ZERBITZUA  
Jose Ramon Aketxe plaza 11 (Kultur Leioa) / Tel: 94 607 25 76





LALUCA CIRCUS TALDEA



IGORIO, IZUA TRAPEZOAN



LILLO BAMBINI & ZEKE, IKUSKIZUN BERRITSU ETA BARREGARRIA



PIZTI-HEZITZAILEAK, ATZAPAR ETA AHUTZEN ARTEAN



ANNIBAL, 70 KM ORDUKO ABIADURAKO HERIOTZARI EFRONKA



## Lalucaren egutegia

Iazko bideari jarraituz, aurten ere Algortako Laluca enpresak osatu duen egutegiko argazkiak ekarri ditugu orrialdeotara. Jakingo duzue, Laluca marketinaz, publizitateaz... oro har, komunikazioaz arduratzen da, ederto arduratu azpimarratu beharko genuke. Izan ere, egutegi honek ederto adierazten du zer egiteko gai diren. 1920an kokatu dute aurten euren zirkoa.

Argazkiak: **Carlos Terreros**

[www.laluca.com](http://www.laluca.com)






TERROR MAGO HANDIA, EMAKUME ERDIBITUA ETA IZAKI BITXIAK



SANSON, JAINKO GUZTIAK BAINO INDARTSUAGO





COWBOY JACK, BERE SOKAZ BALIATUTA INDIARREN EHIZTARI TREBEA



ADELA SUGE-SORGINTZAILEA, PITOIEN DANTZA ARRISKUTSUA





AKILES, LURRETIK 30 METRORA ZERUA ZEHARKATZEN



TURKIARRA ETA BERE EMAZTE AUSARTA, AZTO HEGALARI HILGARRIAK



## zineeskola

Oskar Fernandez

Arte  
paregabea (II)

Zinemak gizartearen gorabeherak, desioak, itxaropenak, mota guztietako egoerak eta abar luze bat proiektatzen ditu, baina gizartearen eragina ere badu paradigma desberdinak eskaintzen. Zazpigarren arte honek intentsitatea, intimitatea eta ubikuotasuna edo nonahikotasuna ditu. Has gaitzen hiru ezaugarri hauek zer esan nahi duten ikusten. Esaten dugu zinematik intentsitatea duela irudiek "errealitatearen" zati bat erakusten digutelako ikuspuntu zehatz batetik. "Errealitatearen" aldi hori musikaren bidez indar daiteke, era honetan irudiek duten ahalmen sentzoriala bultzatzen da. Zinemak duen intimitatea lehenengo planoaren erabilpenagatik etortzen zaio. Filmetan agertzen zaizkigun gizakumeen pentsamenduetan aipatutako plano horri esker sar gaitzeko, haien barruko eta ezkutatutako psikologia ikus dezakegu, alegia. Zinemak ubikuotasuna du espazioan eta denboran zehar eramaten baikaitu. Irudien itxurazko mugimenduak, soinuak, zine aretoek dituzten nahitaezko ezaugarriak (iluntasuna, erosotasuna: erdi jesarrita edo etzanda, aditasun puntu bakarra) zinemari paregabekotasuna ematen diote. Baina arte honek beste arte guztiek baino arreta askoz gehiago eskatzen du, ez baldin badugu nahi irudien itsasikaran hondoratu. Irudi zinematografikoek duten esanahia filmaren testuinguru araberakoa eta ikusleen jarrera mentala zein testuinguruaren araberakoa da. Pantailatik igarotzen den pelikula bat baino ez da, baina bakoitzak erantzun, iritzi, pentsamendu eta sentimendu bestelakoak plazaratuko ditu, estratu kulturala eta soziala desberdina izango da-eta, baita gustuak, zaletasunak, aurreiritziak eta mugak ere. 4

## Bertoko harrobira begira

### Gaizko Fanarragak eta Ibon Antuñanok algortarrek zenbait sari irabazi dituzte

**Pasa den** urteko maiatz aldera Australiatik antolatu eta munduko hainbat hiritan aldiberean (egun berean, gai eta ezaugarri berdinekin) egiten den lehiaketa batean parte hartu zuten Ibon Antuñano eta Gaizko Fanarragak, Donostian. Algortarrek Film Labor Esperimental onenaren saria irabazi zuten. Handik hilabete batzuetara, azaro aldera, Elorrioko sariketa batean hirugarren postua erdietsi zuten. Eta urte amaieran Topagunearen ekimenez egiten den Euskal Herriko II. Ikus-entzunezko Rallean goreneko postuan lotu ziren, irabazle Laudion. Ez zen erronka makala izan, zazpi ordutan gehienez 3 minutuko filma sortu behar zuten. *"Jorratu beharreko gaia*



Gaizko eta Ibon

### «7 ordutan, gai eta lekutze jakin baten gainean sortu zuten film laburra»

Laura Mintegiren *"Bai, baina ez"* liburuan oinarritzen zen eta derrigorrezko lekutze batzuk agertu behar genituen; konturatu ginen ia lekutze guztiak elijioagaz lotuta zeudela; orduan, erabaki genuen Jaungoikorik den ala ez gaiaren gainean jardutea; *"bai, baina ez"...* Gidoia off-abotsean egin genuen, aktore barik, eta travelling-a erabili genuen".

Antuñanok Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan egin ditu ikasketak eta Gaizkok filosofia ikasi eta Arte Ederretako ikus-entzunezko zenbait eskola hartu ditu; aspaldi dira zine-bikote. Euren buruei termometro bat jartzearen hasi ziren sariketetan parte hartzen, *"gure ahalmen sortzailea neurtzeko"*, azaldu dute. Hala, emaitza onak lortzeko konfiantza eman diela onartu dute, *"proiektu berriak aurrera egiteko bultzada izan daitezke"*. Egitasmo bat ere badabilte buruan: *"Isasi Urdangarin lagun idazlearen lanen bat zinemaratztea-edo"*. m

## Ez galdu > "Sommer vom balkon" eta "Odgrobadogroba"

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** otsailak 2 eta 9, barikua • **Ordua:** 22:00 • **Zinema Paradiso**



Film bi hauek oso interesgarriak eta gomendagarriak dira. Lehenengoari "Uda Berlinen" izenburua jarri zitzaion gaztelaraz, oso istorioa hunkigarria eta atsegina da eta ikutu umoretsua ere badauka. Pertsonaiek triangulua osatzen dute eta hasieratik sobera zegoena emakume protagonista bien bizitzatik kanpo geldituko da. Bizitza eta gizartearen hainbat arlo begirada kritiko eta zorrotzarekin aztertzen da. Proposatutako bigarren filmari "Hilobiz hilobi" izenburua jarri zitzaion gaztelaraz. Pelikula honek Hegoamerikako eleberriz batzuen bidez zabaldu zen errealismo magikoa deitutako estilotik hurbil dago. Istoriok bere osotasunean badu kutsu berezi hori. Batzuetan dibertigarria da eta barre eragiten die ikusleei, beste batzuetan beriz, triste eta gogorra da eta sekuentzi batean oso latza, bortitza eta izugarria ere bai.

## Bosgarren Hariaren 2. uzta

### BAP!!, Jotakie eta Rory Gallagheren gaineko liburuak kalean dira



Bap!! talde gogoangarriko kideak

**Gaztelupeko Hotsak** disketezari lotutako Paper Hotsak argitaletxeak iaz aurkeztu zuten Bosgarren Haria liburu bildumaren ekimena. Helburua musika liburutzea da, *"modu personalean idatzitako euskazko musika biografik argitatzeko"*; kantagintza, kantari zein musika taldeen ibilbidea modu irakurterazean eta asmo dibulgatiboagaz liburu batean biltzea. Orduko aurkezpenean plazaratu zituzten *Itoiz, hari xingle bat* (Jon Eskisabel), *Ramones, familia maitagarria* (Gotzon Hermerosilla), *The Clash, Punk Rock 'n' Roll Reggae matxinada* (Paddy Rekalde) eta *Public Enemy, beltzei, indartsuegi* (Asier Leoz). Orainsu argitaratu du, oster, uzta berria

Bosgarren Hariak: *BAP!! bai, horixe* (Joxi Ubeda), *Jotakie: Urolan pop* (Xabi Borda) eta *Rory Gallagher: kemena eta leialtasuna* (Jon Gurrutxaga). 80etan sortutako euskal hardcorearen aita bitxiak izan ziren BAP!!ekoak, beste estilo batzuekin nahasten ausartu ziren lehenengotarikoa, liburuaren idazleak dioen legez, *"punk filosofiar eusten zioten: zuk zeuk egin ezazu; egin nahi duzulako, ez besteek egiten dutelako"*. Jotakie-koek, ordea, garai artean gurean borborrean zegoen musika gogorraren joerari jarraitu ez zioten apurtenetakoak izan ziren, eta pop-rocka jorratu zuten. Eta zer esan irlandar bakarlarri ezagunaz... Rolling Stone-ek ezeko eman zion artistaz.... m

## diskoak

**Itaka**  
Nerabe  
Baga-biga



Ezintasuna, maiatasuna... bezalako gaiak lantzen dituzte Nerabeok *Itaka* diskoan. Sentsazio horiek euren musika indartsuagaz uztartu dituzte eta entzulegoa taldeak eraikitako mundu nerabeen murgiltzen saiatzen dira. Neraberen lehen-biziko lana da honakoa, oso rockeroa eta gogorra. Diskoa 2006ko udan grabatu zuten Fidelenea estudioetan eta Mikel Kazalisek ekoiztu eta nahastu du.

**Beldurra, mina, argia...**  
Keike  
Oihuka



Rock zitzatzaile eta indartsutzat jo izan dute Keike taldeak egiten duen musika. Gitarra garrantzitsuak dira talde honetan, beraz, musikaren eta ahotsaren artean izugarriko kontrastea lortzen dute. Nerea abeslariak bere ahotsagaz jokatzen du: batzuetan garratz eta zorrotza eta besteetan goxo eta leuna. Bigarren disko hau Ondarroako Santos Records estudioan osatu dute.

**Hamaika gara**  
Betagarri  
Oihuka



Talde arabarraren zortzigarren diskoa da honako hau eta, beti bezala, metalezko haize instrumentuak daukate oinarri moduan. Reggae-ska familiako doinuak dira, beraz, Betagarrikoek jorratzen dituztenak, funky-a ahaztu barik. Honako hauek dira taldea deskribatzen duten berbak: beroa, indartsua, dantzagarria, jai-zalea... Kantu arinak, berba gordinak eta bere komunitatearen aldekoak beti.

## diskoa >

### Jazz-eko irabazleak



Getxoko XXX. Nazioarteko Jazzaldiaren Talde Lehiaketa irabazi zuen Magnus Mehl Quientett taldeak, eta ordainetan, orainsu ikusi du argia lehiaketako antolatzaileek ekoiztutako

talde alemaniarren disko berriak. Boskotea osatzen duten Magnus Mehl (saxoa), Brice Moscardini (tronpeta), Tobias Hoffmann, Fredor Ruskuc (baxua) eta Ralf Gessler (bateria) ia zoko jaialdian eskaini zituzten bi kontzertuetan grabatutako sei abestik osatzen dute lana, eta Errabal zigiluaren bitartez banatuko da. Orain dela hiru bat urte sortutako taldearen lan berri hori dagoeneko salgai dago denda berezietan, baina, horrez gainera, telefono bidez ere egin daiteke eskaera.

**Harremanetarako: 943 753 016**

## bilduma >

### Ariagaren obrak

Gaurko garaian zorobidean itxuraldatuz doan Bilbon, eraikin garaikidegoek entzute handiagoa lortu badute ere, berezko diridira gordetzen du Ariaga Antzokiak. Juan Crisostomo de Arriaga "Bilboko musikagile unibertsalaren" izena daroa antzoki xaharrak, haren omenez hartu zuen izena. Hala, musikagilea jaiotzearen 2. mendeurrena bete den honetan, Bilboko Udalak haren lan osoen edizio kritikoa burutu eta argitaratu du. Publiko orokorrari zein adituei begirako lana bi liburukitan banatzen da, eta Ariagak sortutako musika ondare osoa biltzen du.



etorri  
eta  
ikusii!!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algortia

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

### Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza  
**otsailak 12**

Areetako ambulatorioa  
**otsailak 13**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404



**BASALBO BASERRIA**

## JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Cano literaturaz bapo

**Haur literaturako lan bat eta Paul Austerren nobela grafikoaren itzulpena** plazaratu ditu

**Iaz** eman zioten Harkaitz Canori (Lasarte-Oria, 1975) Espainiako Kritikaren saria *Neguko zirkua* (2005, Susa) ipuin bildumagatik; aurreko urtetik bereganatua zuen Euskadi Saria ere *Belarraren ahoa* (2004, Alberdania) nobelagatik. Baina lasartearra ez da "saritisa" erraz harrapatzen duen horietakoa, sariak zortea direla esan ohi du, "stripu goxo bat", eta "literatura ez dago sarietan". Hala, sutsu dihardu lanean. Iazkoan lan bi sinatu ditu: *Lesterren logika* haur-gazteentzat eta *Kristalezko hiria* Paul Austerren nobela grafikoaren itzulpena.

Paul Austerren (New Jersey, 1947) New York trilogiako lehenengo liburua da *City of glass* (1985) eta hartan oinarrituta

### «Kristalezko hiria eta Lesterren logika kaleratu zituen iaz lasartearrak»

Paul Karasik eta David Mazzuchelli marrazkigileek nobela grafikoa, "komikia", kaleratu zuten 1994an. Berori euskaratu du Canok zailtasunen gainetik: "Bunbuiloa ezin da handitu; ingelesak dituen minarizko monosilabo kateatu horien eraginkortasunari, sintesi ikanagarri horiei... euskarazko itzulpenean ordaina bilatzea oso zaila da, euskarak hitzak "gizentzeko" joera



Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975)

*baitu. Horretan aritu naiz borrokan, baina gozatu ere egin dut*, adierazi zuen aurkezpenean. Gogoratu, Paul Austerren *Brooklyngo erokeriak* (Oskar Arana) ere itzulpenean garaikide heldu zitzaigula iaz; eta laster helduko da euskaraz haren azken lana: *Bidaiaik scriptoriumean*.

*Lesterren logika* (Elkar) haur-gazte literaturako liburuari Antton Olariagak egin dizkio marrazkiak. Haurrei zuzendutako Canoren hirugarren lana "Normaltasunaren kontrako aldarrikapena" dela azaldu du "jende normala ez baita existitzen"; normaltasunaren aurkakotasun horrek Lester haurri eragiten dizkion arazoez dihardu liburua. m

liburuak



**Hyde Park-eko hizlaria**  
Joxemari Iturralde  
Pamiela

Londresen bizi den euskaldun erbesteratua da Leo eta Hyde Park-en inguratzen zaizkion guztiei bere bizitza kontatzen die igandero. Istoriok eragin zuzena izango dute Londresen erdi galduta dabilzan euskal gazte batzuenengan.



**Heriotza Nilo ibaian**  
Agatha Christie  
Igela

Linnat Ridgeway neska eder eta aberatsa hil dute Niloan barrena bere eztei-bidaian zegoela. Kasualitatez, bapore-ontzian izango da Hercules Poirot detektibe entzutetsua eta bere trebezia zein irudimen guztia marxan jarriko du hiltzailea nor den asmatzeko...

[kirola]

## “Getxo Arraun” itsasoratzeaz

Getxoko Udalak **Getxo izena** eroango duen **taldea eta trainerua** sortu berri ditu



Getxo traineru berria eginda dago, eta seguruenik otsail honetan egingo dute taldearen aurkezpena

**Getxoko** Udalak 31.600 euroko diru-laguntza eman dio Getxoko Arriluze kirol elkarteari traineru berria eraiki dezan. Arraun talde horrek udalerraren izena, armarrria eta Udalak darabiltzan koloreak izango ditu eta Getxoko herriaren izenean jardungo du txapelketetan. Horrez gainera, Udalaren esanei jarraituz elkarte horren esku lotuko da Kirol Portuan eraikitzen dabilzan arraunketa kiroldegia.

Hala bada, Getxoko Arriluze kirol elkartearen sortu dute, "Getxo Arraun" taldea jaiotzeaz dago. Baina, nongo arraunlariek egingo dute arraunean talde berrian? Algortako taldekoek ala Raspasekoek? Edota biek?

Iazko maiatz aldean egindako itaunak dira; baina badirudi zerbait aurreratu dutela.

Algortako arraun taldeko zuzendaritza taldeko Jon Urrutiak adierazi duenez eurek baiezkotza eman diote Udalaren egitasmoari, hau da, Algortakoak Getxo Arraun taldeko kide izanango dira. "Uztailean batzartu ginen Udalagaz, hortik aurrera klub bakoitzak erabaki behar zuen irailetik aurrera zer egin, Bazkideen Batzar Orokorra egin behar genuen erabakia hartu

baino lehen... Guk egin genuen eta baiezkotza inabazi zuen. Orain elkarte berria sortzeko egiteko burokratikoak betetzen gabiltza, proiektua marxan jarrita dago, baina oraindik ez dago dena eginda, egitasmoaren alde guztiak ez daude itxita; gerora, Udalagaz hitzarmena sinatu beharko da..."; azaldu du Urrutiak.

### «Zein taldetako arraunlariek osatuko dute "Getxo Arraun" talde berria?»

Raspaseko presidente Jose Mari Murok jakinarazi duenez eurak momentuz ez daude talde berriaren barruan: "Otsailean egingo dugu Batzar Orokorra, eta bertan egingo dugu berba horren gainean, ez dugu ez baiezkotza ezta ezezkorik ere erabaki. Momentuz denboraldi honetan Raspas legez jarraituko dugu. Nire ustez, egitasmoa bideraezina da. Gaur egun, arrauna dagoen moduan, diru asko behar da; ez dakit kalkuluak benetan ondo egin dituzten; proiektu oso polita da, baina zelan finantzatuko dute? Azpiegituz gain, arazoa ekonomikoa da". m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA  
KIROL MODA




**350** m<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC

**Lacorfris**.s.l.



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZU-  
NA  
• 3 HILABETEKO GARAN-  
TIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU-  
A

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



**Ana Iri** > bitxi diseinatzailea

## “Bitxiaren diseinuarena oso gutxi ustiatutako sektorea da Euskal Herrian”



Ana diseinatutako bitxiak ikusteko: [www.anairi.com](http://www.anairi.com) webgunean. Informazio gehiago: 94 602 29 13 / 661 907 702

**Ana Iri bitxi diseinatzaile getxoartzar Algortako Amezti kalean ipini du tailerra, sendiarengandik eta lagunengandik hur egotea gustuko daukan horietakoa da-eta. Barne diseinua ikasi zuen bere garaian eta horretan jardun zuen denboraldi batez. Lan hark, baina, ez zuen asetzen, beraz, behar zuen adore guztia bildu eta bitxiak diseinatzen ikasi zuen bere negozioa irekitzeko.**

—Bilduma berriaren aurkezpen lanetan zabilta une honetan.

—Bai, “Crisálida” izena ipini diot. Arrak tximeleta bihurtzen direneko momentua hartu dugu oinarritzat eta enpresaren izaeragaz lotuta dagoela esan dezakegu; izan ere, momentu honetan edukitzen ari garen eraldaketagaz zuzenean lotuta dago, negozioan egonkortzen ari gara. Joan den mendeko 20. hamarkadaren eragina daukan bilduma da: lepoko oso luzeak, pieza handiak, pieza txiki delikatuak, harri bitxiak (agata urdina, kuartzo zuria...),

larrua, perlak... Besteak beste, sitsa edo tximeleta formadun bitxiak sortu ditugu. Diseinua nik neuk egiten dut, ondoren prototipoa sortu eta dendetara eroaten dugu.

—Ze motatako bitxiak diseinatzen dituzue?

—Lepokoak, pultserak, belarrikoak, eraztunak... Urtean bilduma bi egiten ditugu: udaberria-uda alde batetik, eta udazkena-negua bestetik. Kanpainia bakoitzean gai bat aukeratzeko dugu. Orokorrean, zilarrez eta zahar-urrik urteagaz behar egiten dugu, baita oso ondo aukeraturako harri bitxiak ere.

—Nortzuk dira zure bezeroak?

—Marka anitzeko dendak izaten dira, maila erdi-altukoak. Egiten ditudan apaingarriak 20-50 urte bitarteko jendearentzat dira. Gehienbat Estatuan saltzen dut, baina atzerrian ere badauzkat bezero batzuk: Ukraina, Italia, Grezia...

—Zergatik utzi zenuen barne diseinua?

—Komunean gauza asko dauzkaten arren (diseinua, bolumena, hiru dimentsioak...), barne diseinua oso orokorra iruditzen zait. Gainera nik eskuakaz behar egin gura nuen.

### «Joan den mendeko 20. hamarkadaren eragina dauka bilduma berriak»

—Euskal Herrian ez dago bitxi diseinatzaile askorik...

—Bitxiaren diseinuarena oso gutxi ustiatutako sektorea da Euskal Herrian. Apaingarrien munduan jende askorik ez egotea oso onuragarria izan da niretzat! Aldiz, beste arlo batzuetan diseinatzaile asko dago eta merkatuan garrantzitsua den jende asko bertokoa da.

—Oso gatxa ematen du mota honetako negozioa abian ipintzea!

—Lan izugarria egin behar duzu. Gainera, dena dago zure eskuetan eta gauza asko egiten ikasi behar duzu. Ez dizu inork enpresa bat martxan jartzen erakutsiko, baina daborduko bitxiaren munduan leku bat egin dugu.

—Zergatik Algortan eta ez Bartzelona bezalako hiri handi batean?

—Etxekoan artean egon gura dudalako. Tailerra denez ez dago arazorik, saldu gura dudanean mugitu egiten naiz. Bost bat hilabete ematen ditut etxetik kanpo eta gainerakoan tailerrean sartuta egoten naiz, bilduma berriak egiten. Gu denden hornitzailea gara, beraz, gure kokalekua ez da garrantzitsua. m

### Esakere > “Gauze gitxigaz ezin luzaro aberats plantie egin”



Irudia: Gorka Vazquez

Plantak egin, itxurek egin... Ez da oraingo kontu gauza bat ixen eta itxurekaz beste bat erakutsi gure ixete. Eta ez da gauza zintzo bere, ez, baia bakotzak ahal daun modun topaten dau poztasune: ahor dekozie irudiko morroitu, kasik ezer bere ez dekola, alkondara zahar bat berez, baia nok haren plantari barre egin egunez! Kliman eta bizilekun kontuk oraingo modun badoaz, ganera, igual batek baiño gehiago ibili beharko dogu era horretan!

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran “Atsotitzak” bilduman topako doze.

### Gureberbakere85

Testua: Xabi Bilbao

### Esakera zahar batzuk: yan, edan, lo (II)

Esakera zaharrak gabiltzez, eta zaharran arten zaharrenari omenaldi modukotxu bet egiteko, Iruña-Veleiako indusketatan idatzite topa direzen euskerazko berbatario hiru hartu genduzen, eta horrek berbak daukezen esakera batzuk aietu genduzen *Berbakere 85*en. Hemen aurrera egingo dogu era horretako esakerakaz, ugeri direz eta, yate, edate eta loan generako esakerak.

Edate ta jate dala ta, sarri agertuten direz gehiegikerikez kontuz ibilteko abisuk, kasu baterako G.Garatek beran bilduman dakazen honek:

- *Alperrik ixengo dok gixon andi, asko edanda barregarri.*
- *Gizonik txatsarrenak be bi balio dauz ardaua edanda.*
- *Bapo (majo) jan-edan osteko bidea askoz luzeagoa da.*
- *Ez da bizi behar jateko, jan egin behar da biziteko.*
- *Gure badok bizi min barik, ez jan gose barik.*

Baia beste aldetik, badekoz beste era bateko konsejuk bere, *carpe diem* erakok:

- *Jan da edan ta gero kontue.*
- *Mozkorrik txarrena, edan bakoa.*
- *Tripaak emoten dakan guztia artzen dau (Azkuek batute).*

Loan ganera antzeko gauze topa leite Garaten bilduma handin. Alde batetik, egon hadi lo eta jango dok mehe esakera famatu lez, lo larregizez kontuz ibilteko diñauden esakerak:

- *Gabeak kalia eta goizian lo, laster dau txalupak ondua jo.*
- *Asko ikasteko, lo gitxi egin behar.*
- *Lo asko, bizi gitxi.*
- *Jan eta lo, beti totolo.*

Baia beste aldetik, lo lasaien alde egiten dauden esakerak bere badakaz (eskerrak!):

- *Lo edarra, osasun edarra.*
- *Lo eitteko moduen dauena, ondo dau.*
- *Lo ondo egiten daune, aberatsa.*
- *Hartu zak (egik) izen ona eta egizak lo.*

# I

## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

## A Arasa

Sukalde eta Komunitarako  
Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen  
zaharberitzeak eta  
dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GABRIEL



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalbokoia

## Aratusteetan tostadak

**H**au ez da errezeta hau aldizkari honetan argitaratzen den lehenengoko aldia. Baina uste dut ohiturei eustea garrantzitsua dela eta beraz, hortxe doatsue errezeta hau, aratusteetan tostadak jatea ohitura zaharra dela gogorarazteko soilik bada ere. Postre, gosari zein merienda goxoa da eta gainera oso erraz egiten dira tostadak. Hasteko, ipini sutan litro bat esne, bota azukrea eta kanela adar bat. Irakiten duenean basobete koñiak gehitu. Bestetik, ogi sikua xerretan zatitu, ontzi batean sartu eta sutan eduki dugun esnearekin estali, zortzi bat orduz. Ondoren tostada bakoitza, irabiatutako arrautzetik pasatu eta frijitu. Amaitzeko, nahastu azukrea eta kanela ehotua, ondoren tostaden gainean bota. <sup>m</sup>

### osagaiak


og<sup>i</sup> sikua • esne (litro bat) • koñiaka • azukrea (gustura) • kanela



itsaso arana / jolastokikoa

## Airen mahatsa

**G**utxi jakingo du ospe txarreko mahats honek estatuan gehien ekoizten dena dela, izan ere mahastien %25 inguru hartzen du *airenek*. Valdepeñas eta Mantxan nagusi da hango mahats guztiaren heren bi hartzen ditu eta. Ospe txarra daukala esan dugu, baina hori mahatsaren kalitateagatik baino, beraren erabilpen eskasagatik gertatu da. Hala ere, gaur egungo teknika modernoekin ia leku guztietan egiten dira ardao onak edo behintzat, edangarriak. *Airenek* ardao zuriak ematen ditu, kolore horixka argidunak. Sudurrean fruitu onduak gogora ekartzen ditu (platanoa, piña, pomeloa); ahoan ,berriz, apur bat garratzak badira ere erraz edaten dira, baina ez dira ardao dotoreak izatera heltzen. *Tempranillo*guz nahastuta kalitate bajuko Mantxako balzak egiteko erabili izan da. Nahasketa bera egiten da, baina proportzio txikiagoan, Valdepeñaseko klareteak egiteko. <sup>m</sup>



## Teikitisy Lounge Bar

Har ezazu patxadaz!



Ivan Pedrosa eta Alicia Sanchez

**Zorte honekoa** da Ivan Pedrosa, edo hori behintzat uste du berak. Dagoeneko urte bat pasa da *Teikitisy* taberna ireki zuenetik eta, ostalaritzan bere lehenengo esperientzia dela kontuan hartuta, oso pozik dago lortutako emaitzarekin. Algortan lonja apropos bat aurkitu eta, emaztearen laguntzarekin, dena atondu zuten.

Izena tabernaren filosofiarekin zerikusia duelako aukeratu zuen Ivanek, “*gainera, “k” edukitzeak euskal kutsua ematen dio*”. Musika lasaia, sofa erosoak, argi gutxi... lagunartean gustura egoteko txoko ezin hobea. Jendeak hau baloratu du, “*egunero-egunero datorren jende asko dago*”. Bera ere oso gustura sentitzen da bertan “*azken finean niri gustatuko litzaidekeen taberna bat sortzea zen nire helburua*”. Hala

ere, oraindik gauza asko daude hobetzeko, horregatik abuztuan egokitzapen lanekin hastea espero du.

Kontzertu pare bat antolatu ditu dagoeneko eta aurrerantzean erakusketak, bakkizketak eta antzerako emanaldiak antolatzea pentsatuta dauka Ivanek: “*Ideiak ez dira falta, orain urte honetako balantzea egin eta akatsak konpondu behar ditut*”. Sukaldea ere abian ipini nahi du, pintxoak eta razioak eskaintzeko, “*baina horretarako lan handia egin behar da oraindik: sukaldari bat topatu, materiala erosi...*”.

Hil honetan lehenengo urteurren jaia egingo dute. Horrelako beste asko ospatzeko aukera izatea espero du Ivanek. <sup>m</sup>

Algortako Etorbidea 110  
Tel.: 635 632 597

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



## Asado r



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO

CAFE  
**Usategi**  
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA





**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria etxean jaso nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]


<p><b>URA</b> t</p> <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Heldu da aste-akabua eta jantzi du zure aurpegiak irribarrea. Astelehenean begi-zulo ilun-ilunak edukiko dituzu, logura handia ere bai, baina gero gerokoak. Aste akabu ahaztezina izango da, baldin eta gogotsu ekiten badiozu.</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p> <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> "Deusetako on ez denik ez da" dino esakerak. Ondo dakizu zertarako zaren gai zu, baina "nik ez dakit, ez dut ulertzen, dakien batek egiten badu hobeto!" esanda ezer egin barik gelditzen zara, alper hori!</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p> <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Mundua ortzadarra da zuretzako, baita negu gorrian ere. Arazoen aurpegian irribarrea margozten badakizu, eta ez irribarre zuria! Denak zu lakoak balira... udaberriz jantziko genuke urtea! Askotan ez gara konturatzen alboan dauzkagun botere magikoak!</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p> <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Mari kexati! Oraingoan zer da? urte beltzaren prezioa, arrainarena, arroparena... Horrek guztiak badauka konponbiderik: garraio publikoa erabili, arrain izarria eta merkea ere bada, iazko arropa oraindik ere jantz zenezake... abe-raskume itxura hartzen zabilta!</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p> <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Ez duzu beragaz sekula bere barbarik egin, urrunetik begiratzen diozu, urrutitik irribarre... haren izateko modua zeure buruak eraiki du, zeure nahien arabera. Asmatutako irudiaz maitemindu zara, azkenean zeure gezurak ere sinestuko dituzu!</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p> <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Aspaldiko lagun batez egingo duzu topo kalean. Denbora luzea pasa da azkenengoz elkar ikusi zenutenetik, eta asko aldatu dela antzemango diozu. Gombida ezazu kafetxo edo garagardo bat hartzera, asko daukazu-eta elkarri kontatzeko.</p>
<p><b>GARIA</b> t</p> <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Azkenean konturatu zara zein den lagun ona eta zein ez. Edozelan eskerrak eman beharko dizkiezu, urte askoan zure alboan egon dira eta jaramonik egin ez badiezue ere, ez dira zure ondotik aldendu.</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p> <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Garai txarrak dira hauek zuretzat. Buruari buelta gehiegi ematen dizkiozu eta zure jarrera bizitzaren aurrean ez da batere baikorra. Jendeak maite zaitu, lagun onak dituzu. Etorkizunean hobeto joango zaizula ziur nago.</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p> <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Zozoak beleari: ipurbeltz, astoak mandoari: belarrituz, huntzak bilgarroari: buru handi eta zuk lagunari alperrentzi! Potrojorran ematen dituzu 24 orduak! Horrela aberatsak bakarrik bizi litezke! Eta amaren poltsikoetan ez dago 20 eurotik gorako billeterik!</p>
<p><b>META</b> t</p> <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Zure bizitzari zentzia hartzen diozu lehenbiziko aldiz. Laino grisek ostaretei utzi diete lekua. Eskerrak, bazen garaia! Egunerokotasuna ez da pentsatzen zenuen bezain gaxta eta indartsu sentitzen zara. Zorionekoak zu...</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p> <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Kirola egin, etxeko lanetan lagundu, hain burugorria ez izan... Horiek guztiak beteko zenituela zin egin zenuen urte akabuan. Hala ere, urte berri honetan ez dugu aldaketarik antzeman. Ura, gezurretan berriro?</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p> <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Sorginafariak txarto egin zizulako aitzakia eman diozu amari. Goizean goiz eta parranda egin ostean jandako pintxo hura ez zegoela egoera onean? Bada, mokadu batean jan zenuen! Zer uste duzu amak sinetsi dizula?</p>

**mungia**  
oKINdegia

*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



## denborapasa

## LUMA aldizkariaren eskutik

## Ezker eskuin

1. Azpeiti aldean, ondoez, zorabio, mintxuri. 2. Xake jokalaria. 3. Abaoa, orraza. Lehen bokala. 4. Bizkaieraz, iloba. Leku. 5. Gipuzkoako herria. Geldia. 6. Halabeharra. Bokala. Ez eme. 7. Kuia. Gabezia. 8. Kontsonantea. Herritarak administrazioaren oker eta gehiegikerietatik begiratzeko betekizuna duen pertsona. 9. (Her.) Eta. Guztiz larritua. Kasik. 10. Enda. Himalaiako abere.

## Goitik behera

1. Euskal perkusio tresna. 2. Pluralean, garbitzeko erabiltzen dugun produktua. Ez eme. 3. Kalitua, akatua. Kontsonantea. 4. Itxura, tankera. X. hilabetea. 5. Gabarra txikia. V. hilabetea. 6. Gariaren eta kideko landareen zurtoin ihar, ebaki eta jo ondoren. Garaia. 7. Plentziako arrau elkar-tea (Her.). Eta. 8. Luke, hiri. E bikoitza. Kontsonantea. 9. Dago. Gipuz., ilargia. 10. Euskalduntze erakundea. Biraoak.

## Soluzioak

K	V	J	V	Z	V	R	H	V	A	V
V	I	V	O	T	I	V	V	T	V	T
O	K	E	T	R	V	R	V	R	V	R
V	Z	E	V	I	R	U	R	K	V	A
R	V	E	V	U	T	V	A	T	V	P
V	L	E	T	O	M	V	A	V	A	V
K	I	O	T	V	A	B	O	L	V	A
V	V	K	A	S	V	R	V	X	V	V
K	V	I	R	V	L	A	K	E	V	X
V	L	D	V	L	V	A	K	V	A	T

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

## asmatu eta irabazi &gt; bi lagunentzako bazkari bat



## Nor da?

- Ibero herrian jaioa
- laz hiru txapelketa nagusiak irabazi zituen
- Aurtengo sagardo sasoiaren berak zabaldu du

> Aurrekoaren erantzuna: Olentzero

> Irabazlea: **Andone Barrenetxea\* (Getxo)**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalitako erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

Usategi  
kafetegia

Usategi parkea zlg, **Algorta**  
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



CELE MADARIAGAK (GB) UTZITAKO ARGAZKIA

## Bittor Egurrola

## Ehiztariak Faduran, 1965

**Algortako** ehiztariak eta arrantzaleek elkarren aurkako partida jokatzen zuten orain hamarkada batzuk, beti San Jose egunean, hau da, martxoaren 19an. Lagun arteko partida baino, jai herritarra izaten zen, euskal dantza taldeek alaituta.

Argazkia Faduran bertan aterata dago (beharbada Batxik aterata). Atezaina, baserritarrez jantzita, Isidro da, Algortan oso ezaguna *Isidro* tabernagatik (gaur egun *Kankamo*). Eta hona hemen berarekin zerikusia duen gertaera bitxia. Isidrok bazeukan loro bat eta futbol partidetan, atezain zegoen bitartean, langa gainean ipintzen zuen bere loroa. Partida batean zoritzarrek baloikada batek hil egin zuen. Horregatik, eta argazkian ikus daitekeen moduan, jokalariek besoko beltza daramate aldean. Izan ere, Isidoren loroa taldekidea ere bazen. m

**Zutunik:** Eduardo Martinez *Biritxi* (masajista), Fulgencio Rekalde, Agustin Hernandez (GB), Blas Etxabe, Jose Arias, Ardeo (GB), Isidro Bengoetxea *El mudo* atezaina (GB).

**Makurtuta:** Juan Ramon Igual, Juan Atxurra (GB), Cele Madariaga (GB), Jose Luis Martinez *Txeli*, Pedro Garai, Manolo Sertutxa.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria



[aitormenak]

**ONINTZA ENBEITA** > bertsolaria eta kazetaria

# “Kuban gizarte ezberdin bat posible dela ikasi nuen”

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**  
Baikorra eta sentimentala.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**  
*Pretty Woman*. *Cenicientaren* bertsio modernoa da. Uste dut inoiz ez zaidala horrelakorik gertatuko.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**  
*Haydee Agirre*, gerra aurreko EAJko militantea zen. Emakumeentzat oso garai gogorak izan ziren horiek eta berak aurrera egitea lortu zuen.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**  
Azazkalak jatea eta berandu heltzea.

**Aitor dezakezun bizio bat.**  
Txokolatea, emakumeen topikoa betetzen dut horretan.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**  
Kubara, nire lehen bidai potoloa izan zen, sekulako esperientzia. Gainera bertan ikasi nuen, nahi izanez gero, gizarte ezberdin bat posible dela.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**  
Traizioa, nire atzetik azpijokoetan ibiltzea.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**  
Musika eta liburu gabe, edo hori uste dut behintzat. Eta lagun barik, noski.

**Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?**  
Kantantea izango nintzateke, edo behintzat, ondo kantatzea gustatuko litzaidake. Hala ere, nagoen moduan gustura nago.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**  
Gaztelugatxe. Itsasoa asko gustatzen zait eta hori itsasoa ikusteko leku pribilegiatua da. m

**LABURREAN**— Bertsotan ibiltzeagatik ezagutzen dugu Onintza Enbeita muxikarra. Baina, plazaz-plaza ibiltzeaz gain, kazetari lanetan ere buru belarri dabil. Leioan ikasketak amaitu eta ETBn praktikak egin ostean, Edinburgora alde egin zuen urte betez, ingelesa ikasi eta toki berriak ezagutzeko asmoz. 2004tik *Berría* egunkariko *Matraka* gazte gehigarriaren koordinazio lanetan dabil. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan hiru aldiz parte hartu du, baina aurten heldu da finalera lehenengoz. Euskaldunan kantatzea esperientzia magikoa izan da berarentzat. Giroa, entzuleen jarrera... bertan bizitakoa ez du sekula ahaztuko.

# Sareko euskarazko produktuen katalogoa

Informatikako tresnak eta baliabideak, denbora-pasako jokoak, musikari buruzko web-guneak, aldizkari elektronikoak, informazio orokorreko guneak eta ikaskuntzari lotutakoak.



Eska ezazu  
▶ [euskara.zerbitzua@getxo.net](mailto:euskara.zerbitzua@getxo.net)  
helbidean  
▶ [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

